



hiruka

186. zenbakia
2022ko iraila



UDAKO JAIAK Uribe Kostan

Berriro ere kaleak dantzan



IRAILA > URRIA

MUSIKA



38. FOLK JAIALDIA MARÍA ARNAL I MARCEL BAGÉS

IRAILAK 17 LARUNBATA 20:00 / 24€

MUSIKA



38. FOLK JAIALDIA NEOMAK

IRAILAK 18 IGANDEA 20:00 / 8€

BERTSOLARITZA



2022ko BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

IRAILAK 24 LARUNBATA 17:00 / www.bertsosarrerak.com

ANTZERKIA



BAKE LEHORRA TARTEAN TEATROA

URRIAK 7 OSTIRALA 19:30 / 10€



94 466 01 23
kulturetxeo@getxo.eus
www.getxo.eus



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 10 Zinemaz bizi
- 11 Begia eta bisturia
- 12 Hirudika: Uribe Kostako udako jaiak
- 18 Ane Oliveros eta Gaizka Zabarte, behin-behineko itzultzaileak solasaldia
- 22 Agenda
- 23 Hezkuntzako gehigarri berezia
- 33 Usategi
- 34 Gorlizko Poetak kolektiboa
- 35 Gaizka Cabrejas, Build a Future GKE-aren sortzailea
- 36 Jokin Ramos, *El Conquistador del Caribe* saioko irabazlea
- 37 Jon Kareaga, futbol entrenatzailea
- 38 Iritziak eta horoskopoa
- 39 Argazki-lehiaketa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Paul Bilbao, Uxune Iriondo, Iñigo Esteban Lezkano, Ina Gaztaka Eguskiza, Hodei Rodriguez, Armando Llamosas eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Euskaltegiak bete

PAUL BILBAO SARRIA Kontseiluko idazkari nagusia



Ate-joka dugu ikasturte berria, eta ondorioz, hurrengo egunotan biderkatuz joango dira hainbat ikastaro egiteko eskaintzak. Eta, horien guztien artean, herabeti, euskaltegietak eskaintza ere izango da.

Euskaltegiek matrikulazio-kanpainari ekin diote, eta zeinek bere marketing-estrategia baliatu du euskaldundu beharreko ehunka mila herritar horietako zenbaitek euskaltegirako bidea har dezaten.

Halere, zintzoak izan gaitezen, munduko komunikazio-kanpainarik onenak ere ez du lortuko euskaltegiak betetzea. Aitzitik, euskaltegiak beteko badira, hizkuntza-politika eraginkorraren ondorioz izango da. Euskaldundu gabeko herritarrek euskara beharrezkoa dela sentitzen dutenean euskaltegira joko dute, ez izan zalantzarik. Eta, euskaltegira joateko erabakia hartuta, euskara ikastea doakoa izatea bermatu beharko zaie, ez baitago ulertzerik herri bateko berezko hizkuntza ikasteagatik ordaindu behar izatea.

Hartara, egun hainbat tokitan ikusiko ditugun matrikulazio-kanpainen karteletz harago, har ditzaten erakunde publikoek beharrezko neurriak euskaltegiak betetzeko. Bertan dauden profesionalak gogotsu ez ezik, onena emateko prest ere badaudelako.

«Gizon guztiak ez» ei dira

UXUNE IRIONDO URBISTAZU Bilgune Feminista



Emakumeek erasorik salatzen dugunean, berehala ateratzen dira gizon asko, baita andre batzuk ere, gizon guztiak ez direla horrelakoak esatera (*NotAllMen!*).

Getxoko Emakumeen Jabekuntza Eskolaren egitaraua ikusi dut sarean gaur. Feministok jarraitzen dugu eguneroko indarkeria zelan hauteman, zelan aurre egin, zelan irauli lantzen, norbere zaintza jorratzen eta elkar zaintzea sustatzen, taldeak, sareak, osasuna, bizipoza, umorea jomugan jarrita, gure eskubideez jabetzeko ahaleginean. «*MeToo*» gehiago, denok feminista izan arte.

Urtero bezala, euskarazko eskaintza oso urria da, eta, oro har, plaza gutxi eskaintzen dira. Hala ere, izena ematera animatu nahi ditut Getxoko emakumeak, gazte zein nagusi, denak (epea irailaren 12tik 27ra).

Eta, bitartean, zertan ari dira gizon gehien-gehienak? Ez dute maskulinitasuna lantzeko premiarik sentitzen, ez zaizkie barrenak mugitzen eraso matxisten aurrean? Ez zaie ezer egiteko gogorik pizten?

Indarkeria naturalizatu, normaldu, gutxietsi, babestu, isilduz edota «gizon guztiak ez» esanez ez diguzue bat ere laguntzen. Noizko pribilegioen desjabetze-eskolak gizonentzat? Noiz antolatu behar duzue «Gizon bat ere ez erasotzaile» helburu?

Puntua eta kontrapuntua **Ikasturte berriaren hasiera**

Iraileko aldapa



*Bi urte eta erdiz
horrenbeste kasu,
eta uda honetan
guztiok jo ta su!
Beste ikasturte bat
hemen dugu, aizu.
Dani kriteriodun
pertsona zara zu:
iraileko aldapa
zelan dakusazu?*

**IÑIGO
KORTAZAR
ELIAS**
Algorta

*Irailean guztia
hasten da berriro,
atzera utziz hainbat
kasu positibo.
Aldapa gora eta
KPI-a igo.
Zelan ikusten dudan,
zelan ba, Iñigo?
Berriz izango gara
ginen bezain txiro!*

**DANIEL
DE MIGUEL
AVECILLA**
Getxo



Ibar Nagusien Etxea elkartea

«Zahartze aktiboa eta aktibistak gara»



Nagusien Etxea eraikin soil bat baino askoz gehiago da erabiltzaileentzako, nagusiei euren aisialdia askatasunez autogestionatzeko aukera ematen baitie.

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Nagusien Etxea aurkeztu zutenean, orduan Getxoko alkate zen Imanol Landak adierazi zuen Euskal Herriko nagusien etxe guztientzako eredua izango zela», gogoratu du Paco Rama Ibar Nagusien Etxea elkarteko presidentek. Orain, 34 urte beranduago, EAJko kudeatzaileek iritzia erabat aldatu dutela deitoratu du Ramak, Udalak Itzulbatzeta/Romo auzoaren bihotzean dagoen eraikina eraitsi eta elkarteko kideak bertatik atera gura baitu kosta ahala kosta.

Eraikinagaz batera jaio zen elkarteak gorabeherak izan ditu urteotan, batez ere, 2013an, Nagusien Etxeko egoitza Romo Kultur Etxera (RKE) mugitzea planteatu zitetenean. «Udalak RKE bukatu zuenean, hemengo zerbitzu guztiak

horra eraman zituen, eta gu ere bertara joatea gura zuten. Batzuk horren alde egon ziren, baina gehienok geratzea erabaki genuen. Ordutik, boluntario moduan gure gain hartu genituen eraikinaren kudeaketa-lanak eta egiten ditugun jarduerak antolatzeko ardura», azaldu du elkarteko presidentek. Horretaz gain, Udalak RKEra joateko esan dienean, elkartekoei erantzun diote ezinezkoa dela Nagusien Etxeak dituen 300 erabiltzaileak hor sartzea; «Udalak antolatzen dituen jardueretan itxaron zerrenda egoten da, eta gu ere hara bagoaz ezinezkoa izango da guztiok sartzea».

Azkenean, Udalak eta Aldundiak gura duten bezala eraikina eraisten badute, besteak beste, pertsona nagusi asko etxean bakarrik geratzera behartuko dituztela deitoratu du Ramak, elkartearen jarraikortasuna eta orain arte antolatu dituzten ekintza guztiak kolokan egongo baitira: «Jende asko etortzen da antolatzen ditugun txango eta jardueretara, leku berriak ezagutzera eta jendeagaz denbora pasatzera; beraientzako oso lasaialdi garrantzitsua da etxetik ateratzeko pizgarria ematen dielako». ◀

Getxo Areetako Mesedeetako jaiak

Udalerriko udako azkenengo festak

Mesedeetako Andra Mariaren jaiak ospatuko dituzte barikutik domekara bitartean, Areetan. Ohi den legez, askotariko jarduerak egongo dira denen gozatzeko.

Mesedeetako Andra Mariaren jaiak hankaz gora ipiniko dute Areetan aste-akabuan. Izan ere, hilaren 23tik 25era bitartean, auzokide denek kaleak hartuko dituzte bertoko jai-batzordeak antolatutako askotariko jarduerak gozatzeko. Hala, hiru egunez, adin denentzako hamaika ekitaldi izango dira aukeran. Ohi legez, Eskoletako plaza eta Adiskidetasun kalea izango dira festetako gune nagusiak, baita Bizkaia Zubia plaza ekitaldi baterako edo besterako ere.

Aurten, eraso sexistak ekiditeko asmoz, zapatuan metrora edota taxi geltokietara joateko lagun-taldeak jarriko dituzte martxan ordu betean behin, 00:00etatik 03:00etara. ◀

Getxo Getxo Folk, irailaren 14tik 18ra

Folk doinuak nagusi aste-akabuan

Irailaren 14an hasita, hilaren 18ra izango da aurtengo Getxoko Folk Jaialdia. 8. edizio honetan, kontzertu handien proposamenean emakumeen protagonismoa nabarmendu dute antolatzaileek. Izan ere, besteak beste, Tanxugueiras, Enredadas (Uxía, Martirio, Carmen Paris eta Ugia Pedreira biltzen dituenak) eta María Arnal i Marcel Bagés talde eta artistak arituko dira, besteak beste.

Jaialdiak 13 saio hartuko ditu guztira, eta horietako 8 Algortako Portu Zaharrean izango dira, aire zabaleko eskaintza berreskuratuta.

Ordainpeko kontzertuak, iaz bezala, Muxikebarri Antzokian egingo dituzte, 20:00etatik aurrera; sarre-rak ohiko lekuetan eros daitezke.

Algortako Portu Zaharreko saioak 18:00etan eta 23:00etan izango dira. Azken horietan, jaialdiak jai-giroa sustatzeko asmoa du Gozategi (hilaren 16an) eta Buhos (hilaren 17an) taldeen eskutik. Gozategiren kasuan, gainera, euskal bandak bere 30. urteurrena ospatuko du. Halaber, ez dira falta-ko familientzako kontzertuak ere, 17 eta 18an eguerdiko 12:00etan izango direnak. ◀

Egitaraua

Irailak 23, barikua

- 13:00** Luntxa adinekoentzako.
- 18:00** Ipuin kontaketa.
- 18:00** Acuathloia - Bilbao Bizkaia 2022 Europa Triatloi Multikiroleko txapelketak.
- 19:00** Txupinaren jaurtiketa eta pregoiaren irakurketa.
- 19:30** Haurrentzako jolasak.
- 21:00** Kontzertua: Cuban Band Havana 537.
- 22:30** Kontzertua: Los Toldos.

Irailak 24, zapatua

- 11:30** Puzgarriak.
- 12:00** Fanfarria: Marching Band Getxo.
- 13:00** Sardina jana.
- 13:30** Herri Kirolen erakustaldia.
- 17:00** Zumba solidarioa.
- 17:00** Aurpegi margotzea.
- 17:30** Puzgarriak.

- 17:30** Mus Txapelketa.
- 18:00** Arenas Club - Real Sociedad.
- 19:30** Dantza-plaza: Berantzagí Dantza Taldea.
- 21:00** Kontzertua: Delincuencia Senil.
- 22:30** Areetako Sound Gaua: Galker.

Irailak 25, domeka

- 10:00** Artisautza Azoka.
- 10:30** Barraskilo lehiaketa gastronomikoaren izen-ematea.
- 12:00** Oliver & Liuba magia ikuskizuna.
- 12:30** Paella-jana.
- 13:00** Herri-bazkaria.
- 13:00** Barraskilo-kazolen aurkezpena.
- 17:30** La Fabrik Zirku Erakusketa.
- 17:30** Txokolate-jana.
- 18:00** Barraskilo eta mus txapelketen sari banaketak.

Getxo Jabekuntza Eskola

Ikasturte berriko ikastaroetan izena emateko epea, zabalik

Irailaren 27ra bitartean zabalik egongo da Getxoko Emakumeen Jabekuntzarako Eskolaren ikasturte berrirako izena emateko epea, emakumeen ahalduntzea bultzatzea eta politikan eta gizartean beraien parte hartzea sustatzea ahalbidetzeko, elkartzeko, partekatze eta ikasteko tokia eskaintzeaz gain. Ohi bezala, aurten ere, adin eta jatorri ezberdinetako emakumei hausnarketa egiteko, eztabaidatzeko eta ikasteko, eta, aldi berean, biltzeko aukera eskainiko die, bai eta taldeka eta sareetan antolatze eta munduari buruz dugun pertzepzioa aldatzen laguntzen duten tresnak eskuratzeko aukera ere. Guztira 14 tailer antolatu dituzte, eta, horietatik, bi bakarrik izango dira euskaraz. ◀



Bendejaren defentsan berriro ere, Itzubaltzeta/Romon

Kalean ortuariak saltzea debekatu zioten irailaren 5ean udaltzainek Itzubaltzeta/Romoko nekazari bati, berriro ere. 2018an ere plazan saltzea debekatu zioten eta, hurrengo urtean, gainera, produktuak kendu zizkieten. Horren aurrean, bendejaren defentsan, kalera atera eta salmenta mota hori aldarrikatu zuten irailaren 12an leku berean dozenaka lagunek, baserritarragaz batera.

mendian **Mintzen POZA** PRAKTIKATU

aurzoan

ZUREKIN

euskaraz

EGIN NAHI DUGU *parkean*

tabernan

Lagun berriak egin nahi?
Euskaraz mintzatu nahi?
Astean behin elkartu gaituzen!

Jendea euskalduntzen lagundu nahi?
Aurten Bidelagunak behar ditugu!

GETXON

IZEN EMATEA:
www.egizu.eus/berbalaguna
egizugetxo@gmail.com / 619 93 55 41

MINTZATONBOLARA HURBILDU!
Urriak 6, osteguna, 18:30-20:30, Romon
Urriak 7, ostirala, 18:30-20:30, Algortan

ERANDION

IZEN EMATEA:
www.labur.eus/berbalagunerandio
berbalagunerandio@gmail.com / 621 27 05 46

MINTZATONBOLARA HURBILDU!
Irailak 17, larunbata, 17:00-18:00, Astrabuduan
Urriak 9, igandea, 13:00-15:00, Altzagan

Sopela Literatura

Lizar Begoña idazle sopeloztarrak irabazi du aurtengo Igartza Saria

I railaren 7an jakinarazi zuten Lizar Begoña idazlearen *Itzalkinak eguzkitan* eleberri-proiektuak irabazi duela aurtengo XXV. Igartza Saria. Elkar argitaletxeak, Beasaingo Udalak eta CAF enpresak idazle gazteen sormen-lanak bultzatzeko urtero antolatzen duten sariketari esker, sopeloztarrak bere eleberri-proiektua aurrera ateratzeko 6.000 euroko beka eta lana argitaratuko den bermea jaso ditu.

Aurten, guztira 11 ekimen aurkeztu dira Igartza Sarietara, baina Begoñarena aukera-

Lizar Begoña

Arte Ederretan graduatua, poesia-liburu bi argitaratu ditu: *Aro beilegia* poesia-bilduma (Balea zuria, 2020), Donostia Kultura Saria irabazitakoa, eta *Gepardo japoniarrak* (Susa, 2022).

tu zuten Oihane Amantegi, Irati Jimenez eta Garazi Kamio epaimahaikideek.

Sopeloztarrak narratiban egingo duen lehen eleberri-proiektuak Benidormera (Alacant) garamatza: gune turistikoetan kokatutako kiosko bat da gertalekua, eta bertan lan egiten duten bi emakumezko dira protagonistak. «Gainbehera datorren negozioa, inguru kitsch bat, bi belaunalditako andrazkoen bizikizunak... Gertakizunekin batera josiko dira emozio, oroitzapen eta hausnarketak», aurreratu dute saritzaileek. ◀

Leioa Lejoan Busa

Leioako hiri-autobusa doakoa izango da urriaren 7ra arte

E uropako Mugikortasun Astea eta ikasurte berriaren hasiera dela-eta, Leioako Udaleko Lejoan Busa hiri-autobusa doakoa izango da irailaren 12tik urriaren 7ra bitartean. «Ezagutu, gozatu, erabili» lelopean, Udalaren asmoa da udalerriko autobus-zerbitzu jasangarriaren erabilera sustatzea oraindik ezagutzen ez dutenen artean.

Zerbitzua astelehenetik barikura erabili ahal izango da dohainik, ibilbide osoan eta zerbitzu-ordu guztietan. Aste-akabuetan, al-diz, hiri-autobusaren zerbitzua ohiko moduan egingo da, indarrean dauden tarifen arabera. ◀



Martiartu dorrea berreskuratuko dute

Erandioko Udalak Goierri auzoko Martiartu dorrea zaharberritu eta erabilera emateko asmoa iragarri du. XVI. mendeko eraikina gain, ondoko San Antonio basiliza eta probalekua ere hartuko ditu berritze-proiektuak.

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torreño, 2 48991 – ALGORTA

bai
nuskara

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Gorliz eta Plentzia Kutsadura bakteriologikoa erreketan

Badiako errekek zerk kutsatu dituen aztertzen ari dira

Txotxorro eta Gazatzas erreken iturburuetan dauden behietan egon daiteke isuriaren jatorria. Hala ere, udalek ikerketa abiatu dute jatorria aurkitu eta neurriak hartzeko.

Udaren hasieran, Uraren Euskal Agentziak txosten bat helarazi zien Plentzia eta Gorlizko udalei jakinaraziz udalerrietako zenbait erreketan *Streptococcus* bakterio eta *Escherichia Coli* maila altuak aurkitu zituztela. Oro har, udaldian Plentziako badiako uraren kalitatea ona izan den arren, ume batzuek beherakoa izan zuten hondartzan Txotxorro eta Gazatzas errekek sortzen dituzten putzuetan bainatu ondoren. Horren ondorioz, Gorlizko ospitalearen inguruko errekan eta Plentziako PIE ondokoan ez bainatzeko gomendia egiten duten kartelak jarri zituen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak.

Nagore Utxupi Gorlizko alkateak HIRUKARI baieztatu dionez, aipatutako erreketako uraren kalitate txarra eragiten duen isuriaren jatorria kokatzeko lanean ari dira. «Enpresa bat kontratatu dugu errekan gora laginak hartzeko eta isurketak nondik datozen aztertzeko», azaldu du.

Momentuz, laginketen emaitzak jakin arte, ez dute erabaki zehatzik hartuko, «oraindik ez dakigu isurketak nondik datozen, beraz, horien emaitzak jakin arte itxarongo dugu neurriak hartzeko», adierazi du Utxupik. Hala ere, alkateak aurreratu du inguruko etxebizitza bitan arazoak antzeman dituztela euri-uren eta ur beltzen kudeaketan, «bi hilabeteko epea eman diegu arazo horiek konpontzeko».

Ildo berean, Plentziako Udaleko iturriek azaldu dute Gorlizko Udalgaz elkarlanean ari direla, «Jaurlaritzak bidalitako txostena oinarritzat hartuta».

BEHI-MINDAK ITURBURUETAN. Emilio Onaindi Plentziako bizilagunak sare sozialetan sarritan salatu duenez, udaldi honetan behiak eraman dituzte Txotxorro erreken iturburura, «erreka guztiz kutsatuta dago udan bertan egon diren 31 behien simaurragaz eta



PIE ondoko Txotxorro erreka adierazten du Plentzia eta Gorliz arteko muga.

14.000

eta 16.000 ufc/100 mililitroren inguruan egon ziren *Streptococcus* balio altuenak, eta *Escherichia Coli*-ren balioen kasuan, altuenak 13.000 eta 16.000 ufc/100 mililitroren inguruan egon ziren balioak URAk ikertutako aztergune batzuetan, euria egin zuen egunetan.

185

ufc/100 mililitrotik gorako *Streptococcus* eta 500 ufc/100 mililitrotik gorako *Escherichia Coli*-ren balioetan bainua debekatzea ezartzen du osasun-araudiak.

9

kokapenetako ur-laginak ikertu zituen URAk Gorliz eta Plentzian.

gernuagaz; gainera, errekaetara erabat hondatu dute». Bere Facebook-eko kontuan sarritan argitaratu dituen bideoak adierazi du animaliek Gazatzas errekaetako iturburua ere hondatu dutela eta hondartzara doazen erreketako urak kutsatu dituztela. «Udaltzaingoari, Aldundiko eta URAko teknikariei eta Udalariei gertatzen ari zenaz ohartarazi nien, eta erreka hesiakaz itxi zuten, baina kaltea eginda zegoen eta euria egiten duenean hori guztia hondartzara baxatuko da».

Onaindiren aburuz, Gorlizko eta Plentziako udalek bazeukaten arazo horren berri, baina ez dute neurriarik hartu orain arte, uraren kalitate txarra zela eta hondartzak itxi behar izango zituztela zekitelako.

URAREN TXOSTENA. URAk Gorlizko eta Plentziako hareatzetan dauden erreken kutsadura bakteriologikoa ikertu zuen joan den maiatzetan. Hortik eratorritako emaitzek erakutsi zuten, euria egiten zuen egunetan kutsadura bakteriologikoa araudiak ezarritako gehieneko mugatik hurbil zegoen kasu batzuetan.

Datu horiek kontutan hartuta, agentziak Gorlizko eta Plentziako udalei eskatu zien legez kanpoko isurketarik egon ote zen aztertzea, eta, hala balitz, neurriak hartzeko. Izan ere, ohartarazi zieten batez ere prezipitazioen ondorioz kutsadura bakteriologikoaren maila izugarri igo daitekeela, hartu zituzten neurketetan azaldu zen bezala. ◀

Zinemaz bizi Iñigo Esteban Lezkano

Naturarekin bat

Teknologiak, kasu batzuetan, gizon-emakumeen bizitzaren parte ziren txokoetatik aldentzen gaituela ematen du; izan ere, lehen hainbeste distrakzio artifizialik gabe naturaz gozatzen omen genekien, eta, orain, ahaztuko dugula ematen du.



Gero eta konektatuago gaude teknologia berrieekin; ez da arraroa lagun talde bat eserita bakoitza bere mugikorrari begira ikustea, ia hitzik esan gabe sare sozialetan idazten, argazkiak ikusten edo jolasten. Agian uste dute nahikoa jaitsi direla kalera eta ez direla geratu beren geletan, benetako mundutik isolatuta, baina munduarekin inoiz baino lotuago.

Logikoa dirudi pentsatzea garrantzitsua dela pantaila baten bidez hainbeste bizitzeari uztea eta lehen pertsonan sentitzea. Hainbeste informazioz desinfektatzea, garrantzitsua bere neurrian, noski, baina batzuetan garrantzirik gabea, beste batzuetan subliminala eta interesatua edo, besterik gabe, toxikoa izan daiteke gauden egoera emozionalerako.

Komeni da eguneroko bizitzatik ihes egi- tea, itsasoko olatuekin igeri egin eta erlaxatzea, mendian ibilalditxo bat egitea barrutik birziklatzeko edo zuhaitz baten itzalpean botatzea eta inguruan duguna sentitzea.

Izan ere, zenbait jende ezin ditu disfrutatu ez ibilaldi ez txonbo horiek, baina badira film eta dokumental batzuk, denbora batez, eta, pantaila baten bidez izan arren, naturak dakarkigunaren zati bat transmititzeko gai direnak. Horren adibide da, hain zuzen ere,

Mikel Laboak argi utzi zuen gure bazterrak maite zituela, batez ere gainazalaren azpian ezkutatzen denagatik. Paradoxikoa dirudien arren, denok barruan daramagu, eta garenaren parte bat da.

Jon Krakauer-en 1996ko liburuan oinarritutako filma, *Into The Wild* izena daramana ere; Christopher McCandless-en bidaia erreala erakusten du. 1990ean, Alexander Supertrump-gatik aldatu zuen bere izena eta zeukan bizimodu «normala» utzi zuen Alaskara joan eta mundu modernotik urrun bizitzen saiatzeko, naturarekin armonia osoan. Sean Penn-ek zuzendua 2007an eta Emile Hirsch protagonista duela, Oscar sarietarako bi izendapen lortu zituen, eta oso film interesgarria da, merezi duen istorioa kontatzen duena.

Baina filmek baino gehiago, dokumentalek, agian, inguruan dugun hori guztia modu leialagoan erakutsiko digute. Adibide asko badaude, baina aipatzeko merezi duen mundu mailako ezagunenetako bat da Alastair Fothergill eta Mark Linfield-en *Earth* (2007). Bost urtez grabatua, 26 estatuetatik pasatuta, alde berean entretenitzen eta kontzientziatzen duen lan handia da hori.

Gure biodibertsitatea erakusten digun dokumental ezaguna eta interesgarria ere bada *Natura Bizia* (2021), Lexeia Larrañagak zuzendutakoa. Euskal Herriko fauna eta flora ezagutzeko bidaia da, gure inguruan daukagun natura ugaria eta aberatsa ezagutzeko, eta guztiok zaindu beharreko ondarea dena. ◀



GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Begia eta bisturia Ina Gaztaka Eguskiza

Uda joan da ta

«Negua joan da ta», dio abestiak, oraingoan, uda dugu igaro dena eta, jakina, bizipenak izan dira; batzuk, onak, besteak, ez hainbeste. Atzean dira azken asteetako herri-jaiak, baina, horietan parte hartu duten askok, euren jarrerak ikusita, jai dute.



Atzean dira azken asteetako herri-jaiak (salbuespenak albuespen); eta horiekin batera gibelean geratu dira, bada, bai kontzertuak, bai herri probak, bai txosnak eta, horrekin guztiarekin, udaren giro ezin hobea, udaren usain gozo-gozoa. Urtero legez, uda joan da gure munduaren zentzu tautologikoak hala behartzen duen lez; eta, hala, iraila heldu da, nahitaez eta tamalez, ere bai.

Halere, oporren itxurazko amaiera honek ez du zertan burumakur ibiltzeko aitzakia izan, begirada igo eta ikuspegi zabalago bati erreparatzeko aukera probestu behar dugu, sakonki ez bada ere, hausnarketa epidermiko soila burutzeko, bederen. Udak gauza ugari utzi du bidean, pozak eta tristurak, gogoratzeko zein ahazteko pasadizoak; hots, denbora pasa ahalaren on-gaitzak. Nork bere ibilbidea urratu zuen orain dela hilabete batzuk eta, tartean, eguzkia, hondartza, bidaiak eta burura dator-kion guztia gordeko du bere barnean, iltzatuta.

Alabaina, aurrean daukagun urte berriari hasiera eman aurretik eta erronka berriek gure arreta guztia bereganatu baino lehen, komenigarria deritzot gogoan babesteko hain ederrak, beroak eta hurbilak ez diren hainbat gauzen diagnostikoa egitea. Besteak beste, aurtien izandako jaien argiak, behin baino

«Zure eskutan daukazu, ezin zaitu inork aldatu. Etzaitzez nahastu, maite duzun dena hartu ta borrokaezazu. Mundua aldatu, legearen kontra behar gara batu. Bide luzea eginda, etorkizuna zure eskutan daukazu»

ZIZTADA & RLANTZ
Lorearen Arantzak (2022)

gehiagotan, itzalez bete izan dira. Zehazki, Algortako San Inazioko jaietan bi ziztada mota erabat ezberdinak eta guztiz kontrakoak eza-gutu (ge)nituen. Bata, gozagarria eta pozgarria, herria batzen eta dantzazten duena: Ziztada & Rlantz-eko kontzertua, bihotzaren taupadekin bat egiten duen erritmoan abesten duten artistak, adimenean eusteko modukoa.

Besteak, tamalez, ez du deskribapen ona egiteko aukerarik ematen, horri buruz eskaini ditzakedan hitzak gogoratzekoak baitira, baina guztiz kontrako arrazoiengatik. Ziztadak, kasu honetan, pozoitsuak eta krudelak izan ziren, eraso sexistaren iluntasunak gidaturiko eskutik emandakoak: hiru bider gutxienez jazo ziren eta, Getxoko jaietatik harago zabaldu den itzala izan da –udaren amaierak ikuspegi zabalagoari so egiteko abagunea ematen du–: jaietz jai pairatutako gaitz berria izan da.

Dena dela, esaten da pozo bakoitzari antidoto bat dagokiola, eta gauza bera dagokio gaitxotasun orori egokitutako sendabidearekin. Moralina hutsa gure bidetik at utzita –ez baita hori lerro hauen helburua–, amaiera emango diot testutxo honi Ziztadako kontzertuan, orotariko argi koloretsu bizien artean, botatako bertso zehatz eta jakintsu bat gurera ekartzen, niretzat gakoa: (ikus erdiko zutabea). ◀

Īñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxetz etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



Laster ikusiko gara berriz!

Jairik gabeko bi urte luzeren ostean, zeinen arin pasatu diren udako jaiak; seguruenik, azkarregi. Etenaldian konturatu ginen zein beharrezkoak diren festak gure herri eta auzoak aktibatzeke, eta zenbat behar ditugun elkar besarkatu eta ederto pasatzeko. Parranden ajea atzean utzita, 2022ko jaietako argazkiak dakarzkizuegu orriotara, oroitzapen horietaz berriro goza dezazuen eta halabeharrezko errutinarako itzulera hain gogorra izan ez dadin. Espero dugu gu bezain ondo pasatu izana, eta, daborduko, hurrengo urteko jaien zain motorrak berotzen egotea.

TESTUAK: ANDER ZARRAGA ARGAZKIAK: IKER RINCON MORENO, HODEI TORRES ETA ANDER ZARRAGA













Ane Oliveros eta Gaizka Zabarte Behin-behineko itzultzaileak

«Amets bat izan da lan hau gurerara ekarri eta euskaraz zabaltzea»

Ane Oliveros matematika-irakasle getxoztarrak eta Gaizka Zabarte irakasle ohi zaldibartarrak *Osaba Petros eta Goldbachen aierua* liburua euskaratu dute. Diotenez, Petros Papachristos matematikariaren eta haren ilobaren arteko istorioa du ardatz lanak, betiere, matematikaz inguratuta. Azaldu dutenez, zenbakien teorema, matematikari esanguratsuak eta XX. mendearen hasiera batzen ditu eleberri horrek. Daborduko 40 hizkuntzatarata baino gehiagotara itzulita dago jatorrizko lana, tartean, euskarara.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Irakaskuntzaren munduan ibilitakoak zarete biak. Zer dela eta euskaratu duzue eleberri bat? ANE OLIVEROS: Gaizkak topatu zuen eleberria liburu-denda batean, gazteleraz, eta, irakurri ondoren, niri pasa zidan, asko gustatu zitzaiolako. Bera oso irakurzalea da, baina ez daki matematikaz asko bereziki, eta nik irakurri ondoren, beste begirada batekin egin nuen. Izan ere, lan honetan matematika da protagonistetako bat.

Bestseller bat da, eta 40 hizkuntza baino gehiagotara itzulita dago. Orduan, biok esan genuen: Zergatik ez dugu euskarara itzultzen? Ekarpentxo hori egin nahi genuen matematikaren dibulgazioaren alde. Eta halaxe hasi ginen..

Horretarako, gaztelaniazko bertsioaz gainera, bestelako hizkuntza batzuetara ere jo behar izan duzue, ezta? GAIZKA ZABARTE: Bai. Jatorrizko bertsioa grekoz idatzita dago, 1992an. Ondoren, zortzi urte geroago, 2000an, ingelesez berridatzi zuen idazleak. Orduan, bagenekien jatorrizko horretara jo beharko genuela, eta hori egin genuen. Urtebete eman dugu itzulpen-lanetan.

Zelakoa izan da prozesua? G. Z.: IRALE (Irakasleen Euskarazko Prestakuntza Zerbitzua)

Itzulpengintza

«Guk ez genekien itzultzen. Ahalegina egin, eta IRALEn proiektua aurkeztu genuen. Hala, onartu ziguten eta itzultzen zekien irakasle batek eman zizkigun horretarako eskolak»

Liburua

«Bestseller bat da, eta 40 hizkuntza baino gehiagotara itzulita dago. Baita euskarara ere orain, gure ekarpentxoari esker»

batean hiru hilabetez liberatuta egoteko aukera izan genuen, lan hau amaitzeko eta zuzenketak egiteko. Eta orduantxe atera zen gure lanaren emaitza. IRALEa amaituta, EIMArean oniritzia jaso genuen zuzenketak egin ostean.

A. O.: Esan beharra dugu guk ez genekiela itzultzen. Ahalegina egin, eta proiektua aurkeztu genuen. Hala, onartu ziguten eta itzultzen zekien irakasle batek eman zizkigun horretarako eskolak. Hark lagunduta egon ginen behar zen modura egiten. Izan ere, horrek bermeak eman dizkigu.

Zeintzuk zailtasun topatu dituzue bidean? G. Z.: Askok, zaila da zeintzuk zerrendatzea. Baina, denen artean, nabarmenduko nuke puntu egokia topatzearena. Originalak zer dioen ikusi behar da, baita zelan itzuli duten beste hizkuntzetara, eta bidea egin hor. Zehaztasun handiz ibili behar izan gara, eta zaila izan da.

A. O.: Tonu egokia aurkitzea izan da gakoa. Gainera, bi pertsonen arteko lana izan denez, biok hurbildu behar izan gara, ahots berdina erabiltzeko. Izan ere, itzulpena bakarra da. Oso ariketa zaila izan da, hizkuntza ba-

koitzak bere kodeak dituelako. Hala ere, engantxatu egiten zaitu. Duela 30 urte argitaratu zen grekoz, 1992an, eta, orain, 2022an, euskarak ere bere bertsioa dauka. Amets bat izan da.

Zelako harrera izan du liburuak? A.O.: Kritikak ez ditugu jaso; ingurukoei irakurtzeko eskatu genien, jakiteko ea zelan irakurtzen zen, euskara maila ona zen ala zer. Eta oso gustura irakurri dutela esan digute.

Zer-zelako garrantzia du matematikak eleberri honetan? G.Z.: Matematikaren gaia, amua izateaz gain, arriskua ere bada nobela batean. Azken finean, eleberri bat da hau. Lehenengo pertsonan idatzita, gazte batek kontatua, bere osaba misterioz josita dagoela deskubritzen duena. Misterio horiek matematikari lotuta daude, eta zenbakiekiko lilura pizten du, itsutze arte. Trama arina da, baina azkenera arte eramaten zaitu; harrapatzen zaitu. Matematikak pisu handia du, baina horrek ez du esan nahi matematiketan aditua izan behar zarenik honetaz gozatzeko.

Nori zuzendutako liburua dela esango zenukete? A.O.: Edozein helduk irakur dezakeen nobela bat da. Batxilerreko ikasleentzako ere egokia izan daitekeela uste dut, abstrakzio maila bat daukalako eta matematikak protagonista direlako. Hala ere, gaztetxoek sailetan topa daitekeen arren, ez dut uste horientzat egokia denik.

G.Z.: Beste hizkuntzetan ez dago inon gazteen sailean, eta, gainera, hori problema bat da; 12 urteko batek hartuko balu kalte handia egingo lioke bere irakurzaletasunari.

Matematikak, misterioa... Nola ezkontzen dira bi gaiak istorio batean? A.O.: Protagonistaren osaba Atenaseko aldirietan bizi da. Tipo bakartia da, baina bere iloba aurkitzen hasten da bere iraganeko hainbat kontu, hala nola punta-puntako matematikaria izan zela. Horrekin, badago ilobaren garapen pertsonal bat, bere zailtasunekin matematika ikasten hasiko dena. Horrekin batera, irakurlea matematika maitatzen joango da, matematikaren zutuin handi horiek erakusten joango delako: zenbakiak, teorema...

Matematikek zertarako balio dezaketen erakusten du liburuak? G.Z.: Bai, matematikaren zutuin guztiei buruz hitz egiten du. Dibulgazioa dela eta, dagoeneko hainbat izen zabalduta daude literaturan eta zineman, hala nola Turin, Ramanujan, Hardy eta hala-



Zenbakiez inguratutako liburua da itzuli dutena. Zenbaki lehenak agertzen dira batez ere, horietatik direlako teorialarien lan-tresna. Hala, irakurleak ikasiko du matematikan adar batzuk daudela, eta baita teorema ere.

koak. Liburu honetan, aldiz, 40 matematikari agertu eta aipatzen dira. Horietako batzuk istorioaren parte dira, pertsonai gisa agertzen direnak.

A.O.: Zenbaki lehenak agertzen dira batez ere, horiek direlako teorialarien lan-tresna. Hala, irakurleak ikasiko du matematikan adar batzuk badaudela, eta baita teorema ere. Kasu honetan, gainera, polita da aieru bat dagoelako tartean, Goldwatchek proposatutakoa 1742an, baina oraindik bere hipotesia ezin izan dena frogatu, nahiz eta beti gertatzen den. Zenbaki askorekin frogak egin eta funtzionatu du, bete egiten da, baina ezin izan da frogatu. Beraz, oraindik hipotesia, aierua, da eta ez teorema bat.

Eta, zein da zehazki aieru hori? G.Z.: Bi baino gehiago den edozein zenbaki bikoiti adierazi daitekeela bi zenbaki lehenen batura bezala. 200 urte baino gehiago igaro dira, eta inork ez du ebatzi. Liburuan, osaba Petros eliteko matematikari bat da, eta itsututa dago hori frogatu nahian. Mundu guztiarengandik ba-



Gaizka Zabarte eta Ane Oliveros, euskaratutako liburua aurrean dutela.

besten du bere ikerketa, sekretupean dauka, eta horrek badauka zer edo zer autobiografikotik. Izan ere, Apostolos Dioxadis, liburua-
ren idazlea, eliteko matematikaria izan zen. 15 urte zituela unibertsitatean hasi zen, New Yorken (AEB). Eminentzia bat izango zen, eta eliteko lehiakortasun horri nolabaiteko kritika egiten du liburu honetan. Izan ere, eleberrian behin baino gehiagotan esaten du hau: "Matematiken munduan, edo lehena zara edo ez zara inor".

Bera mundu horretan ibili zen, baina al-
dendu egin zen eta gaur egun gidoiak eta li-
buruak idazten ditu.

**Dibulgazioa aipatu duzue. Matematikak he-
rri xehearengana euskaraz gerturatzeko
zuen aletxoak izan da hau?** A.O.: Bai, nolabait
edo. Gazteleraz eta beste hizkuntzetan hain-
bat liburu topa daitezke mota horretakoak,
baina, euskaraz, ez dugu halakorik topatu.

**Zergatik uste duzue dela horren zaila mota
horretako lanak euskaraz aurkitzea?** A.O.:
Dibulgazioa egitea oso zaila delako. Elhuya-

**Apostolos Dioxadis, liburua-
ren jatorrizko idazlea, eliteko
matematikaria izan zen eta, 15 urte
zituela hasi zen unibertsitatean,
AEBetako New Yorken. Eminentzia
bat zen, eta eliteko lehiakortasunari
kritika egiten dio liburuan.**

Zozketa *Osaba Petros eta Goldbachen aierua* liburua

Ane Oliverosen eta Gaizka Zabarteren, orriotan elkarriketatuen, eskumenez, euskaratutako lan eder hau HIRUKAzale irakurzaileen artean zozkatuko dugu. Horretarako, hiruka.eus webguneko ZOKKETAK atalean izena ematea besterik ez duzue egin behar izango, urriaren 2a, domeka, baino lehen.



rrren badabiltza horretan, eta zientzialariak daude bertan zeregin horretan, hala nola Egoitz Etxebestek idatzitako Lunatikoak lana. Askotarikoez hitz egiten dute, baina, mate-
matiken kasuan, arlo horrek duen abstrakzio-
mailak zaildu egiten du dibulgetzea.

G.Z.: Kasu honetan, hau nobela bat da, eta idazlearen gorputzean bat egiten dute mate-
matikari on batek eta idazle on batek. Bat egi-
ten dute, eta hori oso zaila da. Matematikari
onak daude, baina jar itzazu nobelak idazten.
Ohituta daude beste erregistro batean idazte-
ra, eta hori klabea da.

Gure kasuan, itzulpena egiterakoan, argi
genuen matematikari bat egon behar zela
hurbil, hankarik ez sartzeko. Eta guk gorputz
batean ez, baina biren artean gai izan gara
hori egiten.

**Behin emaitza ikusita, buruan duzue beste
libururik euskaratzea?** A.O.: Kar kar kar, ez!
Gure ekarpena egin dugu matematika- eta di-
bulgazio-liburu hau euskaratzen, eta badago.
Guretzako handia da hori, ederra. ◀

Irail-azaroa

Berango

Irailak 23, 24 eta 25

Hauspotze Akanpada

Berangon, Gorrondatxe bidea 34

Otxantegi Herri Lurrako kideek hainbat jarduera egingo dituzte proiektua ezagutzera emateko.

Erandio

Irailak 18, domeka

Marrazketa inprobisatua

18:00 | Txurruka pasealekua

Eureka Domeka! Kultur zikloko ikuskizuna.

Irailak 25, domeka

Kontzertua: Porrumentzio

18:00 | Txurruka pasealekuan

Eureka Domeka! Kultur zikloko ikuskizuna.

Irailak 24, zapatua

Kontzertuak:

Kai Nakai eta DJ Lady Grumpy

20:00 | Josu Murueta kultur etxean

Feminismoa eta emakumeak musikan ikustaraztea helburu duen Zutik! jaialdiaren bigarren edizioa.

ERANDIO MAGIKOA

Erandioko VI. magia jaialdia

Irailak 23, barikua

Ikuskizuna: *Magieando*

18:00 | Erandiogoikoko Euskadi plazan

Irailak 24, zapatua

Ikuskizuna: *La carpa del misterio*

12:30 | Josu Murueta plazan

Eszenako gala handia

18:30 | Josu Murueta kultur etxean

Irailak 25, domeka

Magipoteo

13:00 | Irailaren 23a plazan

Ikuskizuna: *El Fantasista*

18:00 | Irailaren 23a plazan

Irudimen eta fantasia ikuskizuna.

Urriak 1, zapatua

XII. Takolo Eguna

Astrabuduan

Getxo

Irailak 18, domeka

Hitzaren Dantza 2022

11:00 | Algortan

Dantzan, abesten eta bertsotan kalejira koloretsua egingo dute. Ostein, herri-bazkaria, bertso-saioa eta erromeria.

GETXO FOLK 2022

Irailak 16, barikua

Kontzertua: Mielotxin

18:30 | Portu Zaharrean

Kontzertua: Enredadas

20:00 | Muxikebarrin

Kontzertua: Gozategi

23:00 | Portu Zaharrean

Irailak 17, zapatua

Kontzertua:

Eva Tejedor y Les Panderetes

18:30 | Portu Zaharrean

Kontzertua:

Maria Arnal i Marcel Bagés

20:00 | Muxikebarrin

Kontzertua: Buhos

23:00 | Portu Zaharrean

Irailak 18, domeka

Kontzertua:

Cadipsonians Band

18:30 | Portu Zaharrean

Kontzertua: Neomak

20:00 | Muxikebarrin

Irailak 24, zapatua

Bertsolari

Txapelketa Nagusia

17:00 | Muxikebarrin

2022ko txapelketako lehen faseko lehen kanporaketak.

Irailak 23, 24 eta 25

Areetako Mesedeetako jaiak

Urriak 2, domeka

Dantza: *Otempodiz*

19:00 | Areetako Eskoletako plazan

Kalefest-eko programazioaren dantza-ikuskizuna.

Gorliz

Irailak 17, zapatua

Gorlizko VI. Herri Krosa

11:00 | Udaletxeko plazan

Leioa

Irailak 23 eta 24

Kontzertua: Travellin´Brothers

20:30 | Kultur Leioan

Coming Home Tour birako kontzertu bikoitza.

Irailak 28, eguaztena

Kontzertua: Sonakay

13:00 | Kultur Leioan

Got Talent saioan parte hartu eta gero, izugarri famatu egin den flamenko talde donostiarra.

Urriak 2, domeka

Dantza: *Loop*

18:00 | Kultur Leioan

Zer geratzen da emanaldi baten txaloen ondoren?

Urriaren 3tik 24ra

Erakusketa: *Bosteko 2022*

Kultur Leioan

Plentzia

ARTEKALE

V. Kaleko arte eszenikoen jaialdia

Irailak 23, barikua

Antzerkia: *La Maquina*

18:00 | Ontziola plazan

Antzerkia: *Herencia*

21:30 | Eliz plazan

Irailak 24, zapatua

Dantza: *DYE DYE*

13:00 | Ontziola plazan

Antzerkia: *Yijaa*

18:30 | Portuan

Antzerkia: *The Legend*

20:00 | Ontziola plazan

Antzerkia: *Sô*

21:30 | Ontziola plazan

Sopela

Irailak 16 eta 17

Inkestas Rock Festival

Udaletxeko plazan

Bi egunez hainbat talde arituko dira, doan.

Irailak 23, 24 eta 25

Sopela Kosta Fest

Musika, surfa eta beste hainbat jarduera egingo dituzte Sopelan.

Irailak 30, barikua

Abesbatzen kontzertua

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Irutasun Abesbatza, Coro Amanecer eta Lagun Artea Abesbatzak parte hartuko dute

Urduliz

Irailak 16, 17 eta 18

Andra Maria jaiak

Elortzan

Irailak 24, zapatua

Herri Martxa

09:00 | Udaletxetik hasita

10:00etan txikien martxa hasiko da.

Hezkuntza

hiruka

Gehigarri berezia

186. zenbakia

2022ko iraila

Eskolatik kanpo ere hezi zeure burua



**JOSE ANTONIO AGIRRE
EUSKALTEGIA**



**2022-2023
Matrikula zabalik**

+16 urte/años

Maila guztiak, goizez eta
arratsaldez.
Todos los niveles, por la mañana
y por la tarde.

6-16 urte/años

Astelehen eta asteazkenetan edo
astearte eta ostegunetan.
Lunes y miércoles, o martes y
jueves. 17:30 - 19:00

Apunta zaitetz!



**Bulego ordutegia/
horario de oficina**

9:30 - 13:30
16:30 - 19:30

HADE

94 460 66 71

idazkaritza@jagirre.eus

www.jagirre.eus

Diana Franco Eguren Hezkuntzan Librezale taldea

«Digitalizazio burujabedun batera bideratu behar gara»

Hezkuntza-digitalizazioari lotutako negozio-ereduek umeen bizitza ikuskatzeak etorkizunean zer-nolako eragina izango duen galderari erantzuten saiatzen dira Hezkuntzan Librezale taldean aritzen diren 400 ikasle, irakasle eta gurasoak.

Diana Franco Eguren Hezkuntzan Librezale taldeko kidea da eta EDE Fundazioan lan egiten du. Bertan, transformazio digitalaren eta teknologia berrien alorrean inklusioa eta aniztasuna sustatzeko proiektuak lantzen ditu. Horretaz gain, besteak beste, Durangoko Azokako Kabilia Digitala koordinatu du eta Argia aldizkarian idazten du. Bere ustez, digitalizazioak onura asko ekarri dizkio gizarteari, baina baita bazterkeria, zaurgarritasuna eta gatazkak. Azken urteetan, teknologia berriak indarraz sartu dira ikasgeletan, eta horrek hezkuntza-arloan eta umeengan izan dezakeen eragina hurbiletik ezagutzeko galdetu diogu.

Google edo Microsoft bezalako enpresa multinazional handiak euskal hezkuntza sisteman bete-betean sartu dira; horrek askoren kezka piztu du, zergatik? Zergati ugari dago. Niretzat bi dira interesgarrien. Bata zerikusia du enpresa pribatuon negozio ereduak euren lehengai eta bezero bihurtzen dituztela haurrak. Lehengaia dira, datuen ekonomian, non

Software librea

«Software librea paradigma aldaketa bat da, non teknologiak komunitateetara egokitzeko aukera ematen duen, eta ez alderantziz. Horregatik, oso interesgarria da software librearekin hezkuntzaren digitalizazioa sustatzea. Hezkuntzarako nahi dugun ereduaren oinarrituta hasi behar gara nahi dugun hezkuntzaren digitalizazioa pentsatzen, eta ez alderantziz. Software librearen askatasun hori ematen digu».

datua den ondasunak eta zerbitzuak merkatuetara helarazteko komunikazio- eta marketing-kanpaina egokituak sortzeko bide eraginkorra sortzen duena. Datua sortu duena, bezero bihurtzen delarik negozio eredu hauetan. Bigarren zergatia, negozio ereduok sostengatzeko haurrak teknologia ulertzetik urruntzen ari garela da, erabiltzaile hutsak bihurtzeko hezten ditugu, plataformen erabiltzaileak, hain zuzen. Negozio ereduok umeen bizitzaren parte handi bat euren hodeietan gertatzea behar dute: hezkuntza, erosketak, aisialdia... Horretarako, umeak plataformetan adituak eta menpekoak izateko estrategiak sortzen dituzte, euren artean doako zerbitzuak eskainiz. Herri bezala, nolabait deskapitalizatzeko arriskua dugu horren eraginez.

Zein eragin izan dezakete enpresa multinazional horiek hezkuntza-sisteman sartzea? Oso sartuta daude jada, eta, orokorrean, etsipena susmatzen da. Nolabait Troiako zaldia bezala barruraino sartu direla ikusten dugu, gauzei forma eman eta ezer ezin dugula egin



KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO
IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
- Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVA...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.


ikastolenkartea

dirudi. Baina ez da horrela, Internet oso gaztea da, negozio eredu hau oso gaztea da, eta Europa mailan bi zentzutan neurriak hartzen hasi dira: legistlatzen eta software librearekin alternatiba burujabe, etikoak eta auditagarriak sortzen ari.

Mundu digital ezberdinak biziko ditugu denbora tarte berdinean, eta erronka kultura digital kritikoa hartzea izango da, gure etorkizun digitalaren burujabetza izan dezagun nolabait. Baina hau pixkanaka josten joango gara danon artean.

Eta euskararen presentzian horrek ba al du eraginik? Euskal Herrian badago eragile ugari teknologia eta euskara uztartzen duena, itzulketa automatikoak eta kalitatezkoak baliatuz. Baina euskara hizkuntza gutxitua izanik, bada software jabedun ugari euskaraz ez ditugunak aurkituko. Horregatik, Librezele taldeak (Hezkuntza Librezele haren gendak hartu zuen izena) software librean itzulketak egitera bideratu du indar asko, hor gizarte ekintzatik dugun teknologia ereduaren eragiteko gauzak egin daitezkeela erakutsiz, betiere, ezagutza partekatua eta irekia denean. Ikastetxetan beraz, euskara ziurtatzeko software librea erabiltzea da bidea.

Zein da instituzioek auzi horretan duten jarraera eta erantzukizuna? Europa mailan konpromisoa dago, baina gurean oraindik arazoa sakonki ulertzea falta zaigula uste dut.

Oraindik ez dugu ondo ulertzen nahi dugun gizarte ereduaren sortzeko digitalizazioak hausnarketaren parte izan behar duela, digitalizazio burujabedun batera bideratu behar garela, osteraz, beste batzuek nahi duten gizarte ereduera bideratuko dute gure gizarte. Horregatik, hausnarketa sakona behar dela uste dut. Herritarrok, bitartean, gogorazi behar diegu behar hau denbora guztian



«Eremu digitala gure eguneroko errealtatearen parte da, eta garrantzitsua da ikasleek ezagutu dezaten. Hala ere, 40 urte eskas dituen teknologia batek ezin dezake gizakion gorputzak milaka urtetan bereganatu duen jakituria ahaztarazi: harremanak, gorputzari lotutako esperientziak... Askok dugu ikasteko eta eztabaidatzeko honen inguruan»

DIANA FRANCO EGUREN
PROZESU TEKNOLOGIKOETAN
ARITUA

despistatu ez daitezen. Hori egitea ez da batera erreza, eta emaitzak ez ditugu epe laburrean ikusiko, baina egin daitekeen lana da.

Besteak beste, Euskal Herriko hainbat guraso, ikasle eta irakasleek Hezkuntza Librezele taldea sortu zenuten, zein da zuen helburua? Bai, talde irekia da, edonor batu daiteke, ez da ezer jakin behar, ardurak partekatzeko toki ederra da. Hezkuntza Librezele horrela definitzen ditu bere helburuak: «Gure ikasleek datuak enpresa pribatuaren esku uzteak ikaslearen pribatasuna bermatzea ezinezkoa egiten du. Entitate publikoek bultzatuta, gure ikasleak produktu bilakatzeak inplikazio larriak ditu».

Horretaz gain, bost urteko bizitza bakoari bermatzen duten Chromebook gailuetan inbertsioa egitea arduragabekeria dela uste dugu, zaharkitzapen programatua berrerabileraren kontra baitoa. Gure ikasleek erabiliko dituzten gailuetan euskararen presentzia enpresa pribatuaren interes eta gidalerroen menpe uztea ere hizkuntzaren kontrako erabakia da. Are eta gehiago, Chromebook gailuetan, gaur egun, hainbat atal ez daude euskaraz.

Ikasleak behin eta berriro tresna berdinen erabilerara mugatzea hezkuntza digitalaren murriztea da. Gaitasun digitala, Europa eta Euskal Herriko hezkuntza legeek diotenez, ikasleek oinarritzko gaitasuna lortu behar dute, baina tresna horietara mugatzeak ez du inola ere hori bermatzen.

Gainera, hezkuntza komunitatean tresna horiekiko sortzen den dependentzia ere arriskutsua izan daiteke. Enpresa pribatuaren produktuen erabiltzaile eta bezero potentzialak sortzen ari gara, instituzioek bultzatuta.

Hezkuntza Librezele bultzatzen dituen ideia eta helburu horien atzean aditu eta ikerlari asko dago, besteak beste, Pablo Garaizar Deustuko Unibertsitateko ikerlaria.

Ikastola

ander deuna
IKASTOLA

Ikasturte oparoa izan dadila guztiontzat!

Ongi etorri 2022-23 ikasturte berrira!

Musika ikastea umeak hezte

Instrumentu bat jotzen duten umeek kontzentrazioaren, jarraikortasunaren eta pazientziaren garrantzia ikasten dute. Hala ere, berebizikoa da beraien denborak eta tartearik errespetatzea eta aukeratzen uztea, frustrazioa ekiditeko.

Hainbat ikerketek baieztatu dutenez, umeen garapen-prozesuan musika bezalako arte adierazpenak ikastea oso onuragarria izan daiteke. Besteak beste, sormena sustatzen du, ahalegin etengabeak eta diziplinatuak egiteko gaitasuna areagotzen du, matematikarako lagungarria da, umeengan auto-konfiantza indartzen du eta hizkuntzen ulermenerako eta gainontzeko ikaste-prozesuetarako oso baliagarria da.

Jakina da umeak heztea ez dela lan erraza, baina musika bezalako baliabideei esker, bereziki zailak diren ikasgai batzuk modu erraz eta naturalean transmititu daitezke. Gainera, ez da ume prodigioa izan behar musikaren onuretatik etekina ateratzeko, eta horrek gaztetxoek gaitasun asko piztu ditzake, baita pertsona zoriontsuak egingo dituzten balioetan eta bertuteetan hezi ere.

Horren inguruan asko dakite Algortako Soinu musika eskolako irakasleak eta arduradunak diren Agurtzane Basañezek eta Marisa Urretxuak. Diotenez, horretan aritu diren 35 urteetan atera duten ondorio nagusia da musikak poztasuna ematen diela bai umei zein helduei ere, «ahotsarekin zein instrumentu batekin, musikak ematen duena zoragarria da, deskribatzeko zaila dena eta benetan sentitzeko bizi egin behar dena».

Soinu musika eskolan umeek urte bi urte dituztenenetik hasten dira beraiekaz lan egiten. Basañezek eta Urretxuak diotenez, pianoa, biolina, biolontxelo eta bestelako instrumentuak lau urtetik aurrera hasi daitezke jotzen.

Baina ez hori bakarrik, umei musika ikasteak ematen dizkien ekarpenak hainbat direla berretsi dute; esaterako, geldiezinak diren hurrei kontzentratzen eta diziplina lortzen laguntzen die: «Ez da erraza, eta pixkanaka-pixkanaka lortzen den gauza bat da, baina ikusten ditugun aurrerapenak oso handiak dira». Umeek instrumentu bat jotzen ikasten dutenean bereganatzen duten konpromisoa ere azpimarratzekoa dela dio Basañezek, izan ere, «gaztetxoak konturatzen dira, irakaslearekin bakarrik daudenez, ezin direla ezer egin gabe egon, esfortzua egin behar dutela, agian beste arlo batzuetan egiten ez dutena».

Irakasleen aburuz, umei musika ikasteak ematen diena gero ikasketetarako eta, oro har, bizitzako beste hainbat aspektutan eragin positiboa dauka; izan ere, euren egunerokotasunean ere hori nabaritu dutela aitortu dute. «Aditu askok esaten dute musika ikasterakoan burmuineko parte jakin batzuk garatzen direla, beste edozein gauza egitearekin lortzen ez dena», azpimarratu du Urretxuak.

LOTSAREN AURKAKO ANTIDOTOA. Musikagaz, ume askok izan ohi duten lotsa hori ere galtzen doazela diote irakasle biek: «Hasierako klaseetan ume batzuk ausartak diren arren, beste asko oso lotsatiak dira, baina denborarekin askatzen doazela ikusten dugu, eboluzio bat ematen da, eta naturaltasunez lotsa hori galtzen doaz», azaldu du Urretxuak.

Horretaz gain, musikaren eta emanaldien bidez gaztetxoek beraien ideiak eta sentimenduak azaleratzeko erraztasuna ere lortzen dute, eta, horregaz, beraien izaera indartzen dute. Era berean, talde jarduera bat ere denez,

ONGI ETORRI
FANFEST

IBAIZABAL ★ LEHEN HEZKUNTZA BERRIA

ko tresna egokia ere bada



talde-lana ere jorratzen dute, eta autoestimularazoak izan ditzaketen umeei segurtasuna ere irabazten dute, musika-talde batean partaide guztiak baitira garrantzitsuak.

Bestalde, Basañezek azpimarratu duenez, beraien ikasleen artean sortzen den harremana ere oso berezia da: «Hemendik ateratzen direnean oso lagun onak izan ohi dira beti, eta harreman oso bereziak sortu ohi dira».

ERRONKAK. Umeak jaioberriak direnetik hasten dira musika aintzat hartzen, baina musika ikasteko garapen mental eta fisiko jakin bat izan behar dutela diote horretan adituak direnek, horregatik, lau urte dituztenean zentzuzko adina izan daiteke horretan hasteko. Soinu musika eskolan umeei urte bi dituztenenetik hasten direla diote irakasleek. Aitzitik, pianoa, biolina, biolontxelo eta bestelako instrumentuak jotzen lau urtetik aurrera hasi

«Aditu askok esaten dute musika ikasterakoan burmuineko parte jakin batzuk garatzen direla, beste edozein gauza egiten lortzen ez dena»

**AGURTZANE BASAÑEZ ETA
MARISA URRETXUA**
SOINU MUSIKA ESKOLAKO
IRAKASLEAK

daitezkeela azaldu dute, irakurtzeko teknikak eta trebetasun fisiko jakin batzuk garatu behar baitituzte.

Instrumentua aukeratzeko orduan, ohikoen txirulagaz hastea da, baina umeei bestelako instrumentuak probatzen ere utzi behar zaiela aholkatzen dute adituek. Urretxuak eta Basañezek diote, lehen ez-bezala, orain, umeei aukeratzen dutela musika ikastea eta beraiek hautatzen dutela instrumentua; gainera, horrela eginez gero umeei gogotsuago ekingo diote.

Hala ere, Soinuko irakasleen arabera, umeei musika irakastea ez da lan erraza, gaztetxo askok instrumentua berehala jotzen ikasi gura dutelako lengoia jakin aurretik, eta, askotan, aurrerapenik ez dutenez, etsi edo aspertzen dira behar bezalako oinarria jasotzen ez badute. Hori dela eta, garrantzitsua da oinarriak ondo irakastea.

Itxartu euskal dantzari taldea

2022-23 ikasturtea
IZENA EMATEKO EPEA
Urriaren 31era arte

Curso 2022-2023
MATRICULA
Hasta el 31 de octubre

TALDEAK
Txikiak
Ertaiek
Gazteak
Helduak

GRUPOS
Txikiak
Medioak/as
Jovenes
Adultos

Tresnaren bat jotzen baduzu eta euskal musikari murgildu nahi baduzu parte har ezazu gurekin

¿Tocas algun instrumento?
¿Te gustaría formar parte de nuestro grupo?

Harremanetarako/ Contacto:
itxartu.itxartu@gmail.com - www.itxartu.eus - 695 750 649
itxartudantzataldea f itxartudantzataldea

Getxo

S O I N U

musika eskola
Eusko Jaurlaritzak baimendua
• Algortan 1988tik •

Telletxe Kalea, 34, ALGORTA • 688 630 146 • soinu_me@yahoo.es

Eskolaz haragoko hezkuntza

Eskolatik kanpo ikasteak hainbat abantaila eskaintzen dizkie neska-mutilei, Hamilton akademian hori badakite, eta zuku guztia ateratzen diote.

Helburua nagusia hizkuntza ikastea izan arren, eskolatik kanpo umeei egiten dituzten ikasketek beste hainbat abantaila ematen dizkiete. Hamilton School (Bilbo) eta Hamilton Idiomak (Sopela) hizkuntza-eskoletan badakite zein garrantzitsua den bestelako abantaila horiei erreparatzea eta duten potentzial guztia nola atera umeei maila akademiko aparta jaso dezaten.

Esate baterako, ikastetxeetan ez bezala, Hamilton akademian, umeei landu ditzaketen beste adimen eta zentzumen batzuk ere kontutan hartzen dituzte: linguistika, logiko-matematikoa, espaziala, musikala, pertsonartekoa, pertsonen barnekoa eta kinestesiakoa.

Zer esanik ez dago horrelako ikasketa gehigarriek umeei errendimendu akademikoan ematen dizkien abantailaz. Baieztapen horren adierazgarria da Hamiltonen ikasleen ia % 100ak lortzen duela gutxienez B2 maila unibertsitateko ikasketetara heldu baino lehen. Halaber, eskolatik kanpo ingelesa ikasten dutenek abantaila izango dute lan-arloan, aukera-sorta zabalago bat izango baitute hizkuntza-jakintza altuagoa izango baitute.

GELA BARRUAN. Hamiltonen taldeen osaketari eta gelan lantzen diren edukiei garrantzia



Klaseak talde txikiz osatuta daude, dinamika positiboa eta motibatzailea lortzeko.

Hamilton School

Bilbon errota dagoen akademian (Errekalde zumarkalea, 18) zailtasun akademikoak dituzten umeei berariazko laguntza emateko hainbat baliabide dituzte. Lehen Hezkuntzatik Batxilergora arte. Gainera, psikologo-talde berezitua ere dute, zeinak oinarritzko ezagutza-faltaz baino harago doazen zailtasunak dituzten ikasleak laguntzeaz gain, helduei ere terapia psikologikoa eskaintzen diena.

handia ematen diete; besteak beste, eskoletan egon ohi diren taldeak baino askozaz txikiagoak dituzte; horri esker, klaseko ume guztiek parte hartzen dute modu aktiboan, ikasketa-prozesua erraztuz. Halaber, talde txikietan daudenez, ikasleen arteko harremanak hurbilagoak dira, eta, akademian ingelesez komunikatzen direnez, atzerriara joatean edo bizitzako beste arlo batzuetan erraztasun eta konfiantza gehiago izango dute hizkuntza horretan komunikatzeko.

Ingelesa ikasteko prozesua erakargarriagoa egiteko, Hamiltonen ikasleen adinaren araberrako interesekoak diren gaiak ere jorratzen dituzte, ingelesa nagusi den herrialdeetako kultura, berbakera eta ohiturak barne. Horri esker, ikasleen interesa pizteaz gain, hizkuntzaz duten ezagutza ere areagotzen da.

10-8-5-4

ordu astean
horas a la semana

BOGA

autoikaskuntza
autoaprendizaje

%100

aurrez aurre
presencial

MASTITXU EUSKALTEGIA

Iparragirre etorbidea, 78
48940 - LEIOA

euskaltegi@leioa.eus • euskaltegileioa.com

t 94 464 00 02

HABEK diruz lagundua

Ingelesa modu praktikoan ikasi

Real English Getxo ez da gainontzeko hizkuntza-akademien modukoa, bere metodologia praktikoari esker edonork erraz eta modu egokian ikas dezake ingelesa.

Real English akademian konfiantza eta erraztasunez komunikatzeko tresnakaz hornitzen dituzte adin guztietako ikasleak, beti ere, titulazioa ofizialaren eskakizunak ahaztu barik. Horretarako, metodologia fresko eta dinamiko baten alde egiten dute, elkarriketaren bidez ahozko adierazpena indartzean oinarritua dagoena; izan ere, bertara doazenei akademikoki zorrotzak eta abstraktuak diren ideiak proposatzen dizkiete, ingelesezko adierazpen eta funtzionamendu intelektualaren mugak bilatzeko.

Azaldutenez, hizkuntzen irakaskuntzan elkarrenginari garrantzia handia ematen diote, hizkuntza ikasteko ingelesa bitarteko eta azken helburu gisa jartzen dutela; horretarako, komunikazioan oinarritzen den *Communicative Language Teaching* (CLT) metodologia baliatzen dute. Horren gakoak dira atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazioak eta hartu-emanak azpimarratzea, testu errealak erabiltzea, ikasketa-prozesuaren inguruko gogoetak egiteko aukera sustatzea eta ikasleen esperientzia pertsonalei garrantzia ematea ikasgelako elementu lagungarri bezala.

Real Englishen ikasketa prozesua inbertitu egiten dute, lehendabizi, ikasleek ingelesez berba egiten hasten baitira, beraien ideiak adieraziz eta modu egokian ahoskatuz eta uler-



Hemengo eta atzerriko irakasle-talde dinamiko eta gogotsu batek osatzen du Real English.

IKASTAROAK

Real Englishek hiru urtetik aurrera ingelesa ikasteko aukera ematen die txikitxoenei. Bestalde, titulazioa prestatu gura dutenentzako ere maila ezberdinetara egokitutako aukera dute.

mena landuz. Horregaz, gramatika, hiztegia eta aditz-denborak doaz ikasten eta hobetzen.

UDAN ETA ATZERRIAN. Ingelesa ikastea erabateko esperientzia izan dadin, Real Englishek udaldian ere hizkuntza ikasteko aukera paregabeak ematen ditu. Duela zortzi urte hasi ziren Londreseko *Winbledon School of English* ikastetxeko udalekuek 10 urtetik gorako umeak bidaltzen. Lortutako emaitza eta iritzi onek *British Council*-eko ingeles-akademien rankingeko lehen postura eramanez dute. Horretaz gain, ekainean eta uztailean Cambridge azterketak prestatzeko udako ikastaro trinkoak ere egiten dituzte. Eta hori gutxi balitz, hilean behin ingelesa praktikatzeko pintxo-potea egiteko geratzen dira, eta Gabonetan eta ikasturte bukaeran jai bereziak antolatzen dituzte ikasleen arteko harremanak sendotzeko.

ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS
Areneazpi Kolea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Suizidioak prebenitu guran

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak buru hilketak prebenitzeko protokolo bat jarri gura du martxan. Are, hezkuntza-zentroen papera defendatu du zeregin horretarako.

Hasi berri den ikasturteari begira, erronka berri bati aurre egin behar ko diete Euskal Autonomia Erki-degoko hezkuntza-zentroek: suizidioak prebenitzea. Hala adierazi du Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak esanez aurtengo helburuetako bat izango dela ikasleen osasun mentala zaintzea urte biko pandemiaren ostean.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak suizidioak prebenitzeko protokoloa ezarri gura du ikastetxeetan, besteak beste, neska-mutilen emozioen kudeaketa osasungarria bideratze aldera. Hala dago jasota Hezkuntza Sailburuordetzak ikastetxe eta institutu guztietara bidali duen 2022-2023 ikasturtea antolatzeo Ebazpenean. Dokumentu horretatik ondorioztatu ahal izan denez, protokolo berria egiten ari dira, Osasunaren Munduko Erakundearen, UNESCOren eta Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren gomendioetan oinarrituta.

Hala, hezkuntza-zentroek osasun mentala sustatzearen aldeko gomendioak batzen ditu protokoloak, hainbat printzipiotan oinarrituta, hala nola «gizarteratzea»; «itxaropena eta ongizate pertsonala sustatzea»; eta «segurtasuna, konexioa eta komunikazioa sustatzea». Protokoloa ezarri artean, halere, ikasle baten-



Ikasleengan jarriko dute arreta.

IKASGELAK, GUNE EGOKIAK

Suizidioak prebenitzeko protokoloa ezarri gura du Hezkuntza Sailburuordetzak, adingabeek denbora asko ematen dutelako eta, horri esker, gune horiek «osasun mentaleko arazoak eta jokabide suizidak detektatzeko leku egokiak direlako».


gan ondoez sozioemozional estua edo arrisku suizida larria dutela iradoki dezaketen alarma-seinaleak detektatzen dituzten ikastetxeek berehala jarri behar dira harremanetan ikastetxeko erreferentziatzeko ikuskatzaileagaz eta Berritzegune Nagusiko jokabide suizidaren arloko arduradunagaz.

Hezkuntza Sailburuordetzak uste du protokoloa ezarri beharra dagoela, eta hori defendatu du adingabeek denbora asko ematen dutelako hezkuntza-zentroetan eta, horri esker, gune horiek «osasun mentaleko arazoak edo jokabide suizidak detektatzeko leku egokiak direlako». Hartara, «ikasgelak ingurune ezin hobea dira jokabide suizidagaz lotutako faktoreak (arrisku-faktoreak, babes-faktoreak eta alarma-seinaleak) identifikatzeko eta jokabide suizidak detektatzeko eta saihesteko oinarritzko trebetasunak eskuratzeko», azpimarratu du Hezkuntza Sailburuordetzak.

Jakin, badakizu.

Getxoko euskaltegietan,
hobetzen lagunduko dizugu.
www.getxo.eus/euskara

Bete ezazu hizki-zopa, erraza da!



E	A	S	I	Z	E	U	R	E	O	B	B
U	A	N	P	O	U	A	T	X	L	C	E
S	D	H	U	R	S	S	M	A	N	S	L
K	I	O	K	I	K	K	O	P	I	O	A
A	E	B	S	O	A	U	T	E	G	N	R
R	O	E	U	N	R	A	B	R	E	B	R
A	B	T	D	A	A	E	M	D	O	E	I
L	E	U	S	K	A	L	D	U	N	R	P
D	K	R	A	I	M	A	D	U	N	R	R
I	A	Z	O	B	I	K	A	I	N	I	E
A	H	O	B	I	Z	I	T	Z	X	A	S
N	U	T	A	R	M	B	Z	O	I	S	T

**Zorionak
Euskaldun
Berria**

Bikain
Berba
Egin
Euskaraldian
Ahobizi
Belarriprest
Hobetu
Zeure
Euskara

Liburuak baino askoz gehiago

Ia udalerrri guztiek daukate liburutegi publiko bat, baina horietan lan egiten duten arduradunen dinamizazio lanagatik ez balitz, liburuak gordetzeko leku soilak besterik ez lirатеke izango.

Liburutegiek umeen prestakuntzan, aisialdian eta hezkuntzan berebiziko garrantzia dutela azpimarratu du Anabel Regalado Getxoko Udal Liburutegiko arduradunak; bere hitzetan, «hezkuntza araututik ateratzen direnez, irakurketa txertatzeko jolas- eta aisialdi-gune aproposak dira liburutegiak».

Baina ez hori bakarrik, ume eta gazteen-
tzako liburutegiek dituzten jomugak beste asko direla dio, hala nola gazteen informazio-, alfabetizazio- eta sormen-eskubideak



Umeakaz joateko aholkuak

Komenigarria da umeak liburutegira gustura joan daitezen errutina baten barruan eta jardueretan parte hartzea. Aske utzi behar zaie, irakurtzeko zaletasuna bereganatzeko. Bestalde, denon tokia denez, bere arauak errespetatzea irakatsi behar zaie.

bermatzen dituzten gune fisikoak dira. Dituzten baliabideak denen eskura daudenez, kulturaren demokratizazioaren alde ere egiten dutela: «Aisialdi kultureko, informaziorako eta prestakuntzarako aukera-berdintasuna bultzatzen dute, bakoitzaren ekonomia, jatorria, hizkuntza, erlijioa, ezaugarri fisikoak edo intelektualak alde batera utzita».

Udalerrri ia guztiek liburutegiak dituzten arren, horien baliabideak ez dira beti egokienak izaten. Regaladok dioenez, askotan, ekipamendua –altzariak, gailu informatikoa, liburuak, pelikulak, musika...– ez da egokiena izaten. Hala ere, liburutegi publikoetako arduradunek «txinpartak ateratzen dizkiegu baliabideoi», eta euren lanari esker jarduerak antolatzen dituzte materialak dinamizatuz eta liburutegien barruan zein kanpoan ekintzak bultzatuz. «Beraz, esan daiteke giza baliabideak erabakigarriak direla liburutegietan», nabarmendu du Regaladok.

22/23
GETXOKO
UDAL
EUSKALTEGIA

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE)
Santa Eugenia plaza, 1. 4. solairua (Getxo)
944 646 299 - euskaltegi@getxo.eus
www.getxo.eus/eueuskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu




Matrikula irailaren 23ra arte zabalik.
Abierta la matrícula hasta el 23 de sept.

ESKAINZA ETA ORDUTEGI ZABALA
Amplia oferta de cursos y niveles

MAILA GUZTIAK
A1-A2-B1-B2-C1-C2
Todos los niveles

MODULU TXIKIAK (TAILERRAK): 5 ordu astean
Módulos reducidos (Talleres): 5 horas a la semana

IKASTARO TRINKOAK: 5 ordu egunean aurrez aurre
Cursillos intensivos: 5 horas al día presencialmente

JARDUN BIKOAK (4 ordu astean): aurrez aurre eta auto-ikaskuntza batera tutoretzekin
Sistema mixto (4 horas a la semana): combinación de forma presencial y auto-aprendizaje con tutorías

MINTZA-PRAKTIKA: 4 ordu astean (B2-C1) aurrez aurre

AUTO-IKASKUNTZA
Auto-aprendizaje

aek

euskara praktikoa

EUSKARA

IKASTEKO BIDELAGUN ONENA



URIBE KOSTAKO AEK

EUSKARA ESKOLAK

Ikastaro trinkoak

Ordutegi zabalak. Maila guztiak: A1-A2-B1-B2-C1-C2

Autoikaskuntza, online ikastaroak, barnetegiak

Eskaintza bereziak AISA, dendariak, guraso taldeak,...

MATRIKULA ZABALIK IRAILA OSOAN

IZEN EMATEA:

Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aek.eus | Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus

Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus | Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

Urduliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

<http://www.aek.eus/blogak/uribekosta/>
www.facebook.eus/uribekostako.aek

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA: maila egiaztatuz gero.

UDAL GUZTIETAN



Zuzen eta artez

Zerbait egitekotan / zuzen eta **artez** / zorri bat garbitu dut / ur pistola batez». Hala dio Natxo Feliperenak idatzi eta Oskorrik lau haizeetara zabaldutako *Furra-furra* abestiaren bertso ederretako batek.

Orain ez goaz, baina, zorriak garbitzen, ezpada zorrak kitatzen **arteztasuna-rekiko**. Irailean sartu gara: azterketa garaia ikasle jendearentzat. Hizkuntza azterketak ere izango dira han-hemen, gogor askoak gainera. Hala ere, ez ditugu azterketa eta **artezketa** hitz **paronimoak** nahasi behar, biak zelanbait loturik dauden arren. Azterketa nork **artezten** duen izaten da kontua. **Arteztaile** zorrotzarena egingo dugu guk hemen, euskal komunikabideak aztergai ditugula.

Barkagarri dira, jakina, euskara menderatu ez arren, euskaraz egiten **adoretzen** diren irribizi, belarriprest eta ahobizien hizkuntza akatsak. Baina jasangaitz gertatzen dira, egia aitortzekotan, euskal komunikabide (batez ere) publiko ofizialen hizkuntza akatsak, gehienbat sistematikoki irakurtzen/entzuten ditugunak, etxeok, denon diruaz eraikiak izateaz gain, ez dira-eta atzo goizean sortutakoak. Non daude, ba, erakundeotako **artezkariak**? Hainbat adibide ipin genitzake, tamalez, baina bat aipatuko dut, euskaldun **eroapentsuon** begi-belarriak egunero-egunero zigortzen dituen: mugagabearen erabilera. Muga **bako** ezin-gona sortzen du horrek: *hainbat lekutan ikusi dugu* ('hainbat lekutan ikusi dugu'), *bi pertsonentzako bazkaria* ('bi pertsonarentzako bazkaria'; edo agian egokiago 'bi lagunentzako bazkaria'), *zenbait etxera jo genuen laguntza eske* ('zenbait etxetara...'). Okerrena da, ordea, praktika zabar horren bidez autoritatea kentzen zaiola Euskaltzaindiari ez ezik, baita egunero euskaraz **albait** txukunen ari garen euskaldun guztion hizkuntza nazionalari ere. Zeren nik, hizkuntza larrekua, nahi **baihaunat** ere noranahikoa, hego **artezek** igoa, soina zahar, *herri gogoa*, *abal irrati-telebista*, muin betirakoa! Barka **begit** Lizardi olerkari handia izan zenak bere esaldi zoragarria egokitu izana. Helburua arteza zen, ba! ◀

«Baina nik, hizkuntza larrekua,
nahi haunat ere noranahikoa,
jakite hegoek igoa, soina zahar, berri gogoa,
azal horizta, muin betirakoa»

Berba azoka

Artez

Zuzen, adizlagun zein izenlagun gisa. Adibidez: *Lanetik artez etorri gara*. *Erantzun horiek artezak dira*.

Arteztasun

Zuzentasuna.

Artezketa

Zuzenketa.

Paronimo(ak)

Antzera ahoskatu/idatzi arren, esanahi desberdina duten hitzak.

Arteztu

Zuzendu.

Arteztaile

Zuzentzailea.

Adoretu

Adorea hartu edo eman, adoretzu bihurtu. Kemendu.

Artezkari

Zuzendaria.

Eroapentsu

Pazientziadun.

Bako

Gabeko.

Albait

Ahalik (eta).

Baihaunat

Baitzaitut andrazkoen hitanoz, Lizardik andrazko erregistroan artezten baitzitzaion euskarari.

Begit

Biezat, diezadala.

Gorlizko Poetak kolektiboa Errimak eta poesia, bazter guztietan

«Herriko itsas-paisaia bukolikoan ibiltzera irtetea nahikoa da inspiratzeko»

IKER RINCON MORENO ►

Diotenez, Gorlizek errimak lantzeko askotariko lekuak eskaintzen ditu, «edonora begiratuta ere». Hori dela eta, poesian murgilduta dauden hainbat lagun batu eta Gorlizko Poetak kolektiboa osatu zuten 2018an, neurtitzak landu eta poemak edonora hauspotu guran. Iragan uztailan, Gorlizko Artisauen Azokan, erakusmahai bat izan zuten, eta urteotan egin-dakoak partekatu zituzten auzokideakaz.

Argitaratu dituzuen poesia liburuak jendarean aurkeztu zenituzten Gorlizko Artisauen Azokan. Noiztik dabil poeta-taldea Gorlizen? Bertan parte hartu genuen errimen edo neurtitzen artisau gisa dugulako geure burua. Talde moduan, Gorlizko Poetak kolektiboa 2018tik dabil, *Brotos líricos en la bahía* poema-sorta argitaratu genuenetik. Liburu horrek batu egin gintuen, eta talde gisa jarraitzen dugu ordutik, batuta, poesiaren inguruan aurrera eginez.

Zein izan da zuen ibilbidea taldearen hasieratik gaur egunera arte? Gorlizko poesiaren ibilbidea Lucy Sepulveda poeta eta idazleak hasi zuen, 2007. urtean, Kultur Etxeari proposatu zionean topaketa poetiko musikalak sortzea. Jarduera Gari Gorostiza udal-liburutegiko arduradunaren zuzendaritzapean egin zen eta, hala, urte horretako azaroan zehar, poetak eta elkarteak, euskaraz zein gaztelaniaz, astean behin beren lanak aurkezten lagundu zuen. Gariren eta Gorlizko Kultur Etxeko zuzendariaren baldintzarik gabeko babesa funtsezkoak izan dira Gorlizek behar zuen, eta arima-bihotzetik sortu den, kultur jarduerari honi ateak irekitzeko.

Zer poesia-mota egiten duzue? Edozertaz hitz egiten dugu, herriko itsas-paisaia bukolikoan ibiltzera irtetea nahikoa delako leku honetan ugari diren elementuetan inspiratzeko; horregatik deitzen diogu Gorlizi «Euskal Herriko itsasargi poetikoa».

Nola funtzionatzen du taldeak? Garaiaren eta garatu beharreko jardueraren arabera. Pandemiak apur bat geldituta utzi gintuen, baina Internet eta txaten bidez komunikatu ginen, eta, horrela, aktibo jarraitu genuen.



Ana Blanco, Marta San Atilao eta Loli Igartua, taldeko hainbat kide. GORLIZKO POETAK

Datorren urteko festetan euren azken poema-liburua aurkeztuko dute: *Seducción Lírica desde los Confines*. «Txiletik antologia honetan parte hartzera gonbidatu gintuzten, izan ere, Txilen Literaturako Sari Nazionala jaso zuen idazleetako bat da Diego Dublé Urrutia idazle eta poeta, eta, Angolen jaiotakoa bada ere, haren arbasoak Gorlizetik zetozen».

Garai hartan, Txileko Angoletik *Seducción Lírica desde Los Confines* poema-liburuan parte hartzera gonbidatu gintuzten, eta udalerriko hiru poetak parte hartu genuen.

Horretaz gain, bestelako lanik argitaratu duzue? Atera genuen lehenengo poema-liburua, euskaraz zein gaztelaniaz, *Itsas ertzean - A pie de mar*, izan zen, 2006an. Sei poetak parte hartu zuten (ez bakarrik Gorlizekoak), eta bakoitzak sei poema argitaratu zituen; gainera, Gorlizko ipuin-idazle batek ere bere idazkiak partekatu zituen. 2018an argitaratu genuen bigarren poema-liburua: *Mendi, txori eta itsaso arpegioak - Arpegios de montes, pajaros y mar*, Bizkaiko beste herri eta hiri batzuetako poeta gonbidatuekin. Bi liburuak Kultur Etxean daude eta azokan bertan erakutsi genituen.

Gainera, 2011ko udaz geroztik, herriko jaietan Kultur Etxeko liburutegiak babestutako eta kudeatutako errezitaldi bat egiten dugu. Bertan, gure liburuko edo beste poeta batzuen bertsoak aurkezten ditugu; horretaz gain, jaien aldizkarian gune bat dugu, non herria eta bisitariak gonbidatzen ditugun jarduera liriko-musikaletara etor daitezen. ◀

Gaizka Cabrejas Garai Build a Future GKEaren sortzaileetako bat

«Gure asmoa da Ugandako ahalik eta ume gehien eskolatu ahal izatea»

Ugandako umeak eskolatu guran, hango eskoletako baldintzak hobetzeko eta emakumeen zein tokiko komunitateen ahalduntzean laguntzeko GKE bat sortu zuen iaz Cabrejasek beste bi lagunekaz.

IKER RINCON MORENO ►

Ugandako Wakiso inguruko eskola eta umezurztegi bat hauspotzen laguntzeko Build a Future gobernuz kanpoko erakundea sortu zuen Gaizka Cabrejas Garai algortarrak beste bi lagunekaz: Iker Esteban eta Igor Delgado. Izan ere, dioenez, hango Gobernuak ez du hezkuntza publikoan inbertitzen, eta soilik funtzionatzen dute proiektu pribatuak; «agintariak jendarte hezigabea gura dute, herria kontrolpean izateko», salatu du Cabrejasek. Kontuak horrela, familiek eurek ordaindu behar izaten dute seme-alaben hezkuntza euren poltsikotik, eta, askotan, ezinezkoa zaie ume denak eskolatzea.

Hala, tokiko eskola pribatuak laguntzen eta umeak hezkuntza duina jasotzeko bekak ematen diharduen Saluganda GKE-agaz boluntario gisa lan egitera joan zen Cabrejas bere lagun Iker Estebanegaz 2021eko udan. Kontatzen duenez, erakunde horrek tokiko zortzi ikastetxe kudeatzen ditu, eta horietako batera zihoazela, bidean, Kampala hiriburutik gertu lan egiten zuen emakume bat eza-gutu zuten: Sumini Nakakande. «Abokatua izateko ikasketak egindakoa da bera, baina irakasle izan gura zuen, eta bere lagun bat egaz eskola bat muntatu zuen Wakiso herrian», azaldu du Cabrejasek. Une horretan, zentro horrek 54 neska-mutil zituen ikasten, eta, horietatik, 30 bat umezurtzak edo guraso bakarrek ziren. Zailtasunak zituen proiektu horrek aurrera egiteko, azken horiek ere eskolatuta zituztelako, diru-sarrerarik bermatzen ez zien arren. Hori ikusita, bi lagunek proiektu hori hauspotzea erabaki zuten, eta 2021eko abenduan horretarako gobernuz kanpoko erakundea sortu zuten Igor Delgado-gaz batera.

Udaren amaierarako, eskola lekuz aldatu behar izan zuten, alokairua ordaindu ezinik zeudelako. Urrian alde egin behar izan zuten,



Eskola egokitzeaz gainera, umeentzako bekak ere eman gura dituzte. HO DEI TORRES



Equinox Junior School

Gaur egun 81 ume dituen eskola-umezurztegia da. Asmoa da bi urtez hori egokitzen laguntzea bere kabuz jasagarria izan ahal izateko; gerora, umezurtzentzako bekak eman gura dituzte.

Ekarpenak edo bazkidetzak egiteko:
www.buildafuture.es

baina algortarrek egindako hasierako diru-ekarpenari esker, urtarilerako handiago bat alokatzea lortu zuten, bost urterako kontratupean. «Hori lortuta, azpiegituraren beharrak ezarri genituen, eta horiek gauzatzeko zenbatekoa 4.000 eurokoa zela aurreikusitua genuen, hala nola sukaldia berritu, ura biltzeko depositua jarri, argindarra izateko plaka fotovoltaiakoak instalatu eta umezurtzen logelak egokitzeko». Eta horretan ibili dira aurtengo udan. Gerora, asmoa da proiektu hori autosufizientea izatea, eta familiek egindako ekarpenak aurrera egin ahal izatea. Izan ere, daborduko 84 ikasle dituzte, aurrekoan baino 30 gehiago. Halere, horietatik umezurtz asko dago, eta asmoa da etorkizunean horientzako bekak ematea, eskolari diru-ekarpenak hantitzeko. «Gure helburua da ahalik eta ume gehien eskolatzea. Hori zaila da, hiruhileko 80 euro ordaindu behar baita eskolan, eta GKE-ak ez du horrenbeste diru».

Ekonomikoki laguntzeko hainbat ekimen garatu dituzte hilabeteotan, hala nola egutegiak saldu eta bazkideak batu. «Hala ere, diru-ekarpenak jasotzea ez da erraza izaten ari», kexu du Cabrejas, «garrantzitsua da dirua jasotzea, hilean euro bat bada ere». ◀

Jokin Ramos 'El Conquistador del Caribe' saiko irabazlea

«Azkenengo momentura arte ez nuen jakin benetan nork irabazi zuen»

Lehiakor sutsua, lehiaketaren saioaren finalean berdinketa apurtzeko proba bati aurre egin behar izango ziotela uste zuen Jokin Ramos algotarrak.

IKER RINCON MORENO ►

Jokin Ramos algotarrak irabazi du ETBko *El Conquistador del Caribe* saioa. Baina, historian lehen aldiz, final handiaren proban berdinketa egon zen, eta Ramosek Ainize Lizarralde antzuolarragaz ikurrina eta saria partekatu ditu. Irabazleek, ikus-entzule guztiek bezalaxe, uztailaren 4an jakin zuten txapela jantziko zutela, bakoitzak bana. Hona hemen elkarriketaren aletxo bat.

Ainize Lizarralde antzuolarragaz batera, *El Conquis*-eko irabazlea zara. Zelakoa izan da abentura horretatik pasa izana? Gogorra, oso gogorra. Egunero, 24 orduetan, segundo bakoitzeko zer edo zer berria pasatzen zitzaigun. Bi aste gindoazenean bazirudien hiru hilabete generamatxala bertan. Etxean, hara joan aurretik, gosea gogorren egingo zitzaidana izango zela uste nuen, baina, azkenean, Moskitoak izan dira okerrera: arroparen azpitik sartzen zitzaizkigun, eta uneoro ziztatzen ziguten. Gosea, azken finean, denborarekin ohitzen zara, eta, garrantzitsuena, buruan lasaitasuna mantentzea da. Abentura honen ondoren atera dudana ondorioa da dena buruan dagoela: gorputzak dena aguantatzen du; buruak, aldiz ez, nahikoa da esaten duenean, akabo.

Eltxoez gain, zer egin zaizu okerrera saio horretan? Beharbada, janaria mugatzea. Hasieran, zazpi sardina-lata, arroz gordin pixka bat, artahia, fruitu lehorrak eta zazpi barra eman zizkiguten. Eta horrekin guztiarekin aguantatu behar izan dugu abentura osoa,



Elkarriketa, oso-osorik, hiruka.eus webgunean dago.

Finala

«Ondo hasi arren, Ainize nigandik hurbil zegoen eta urduritu nintzen. Dena den, pozik nengoen, irabazi edo berdinduko nuelako, eta etxera bueltatuko ginelako»

Casting-a

«Iazko edizioa bakarrik ikusita nuen, baina jende askok animatzen ninduen aurkeztara. Bada, crossfiteko lagun batzuk aurkeztuko zirela aprobetxatu eta eurekin joan nintzen»

izan hiru egun edo izan 30, eta ez da erraza.

Julian Iantzi eta David Seco aguantatzea ere zaila izan da, denbora guztian ibili direlako zirikatzeko, egurra ematen. Nik hasieratik banekien ez nintzela joko horretan sartu behar, azkenean okerragoa izango litzatekeelako. Niretzat hori lehiaketa bat zen, eta horretan ibili nintzen, lehian.

Garaile izan zinela bertan, Euskal Herrian, zeundela jakin zenuen, denok bezala. Baina, zaila izan zaizu finalera heldu zinela sekretuan gordetzea? Ez nion inori esan. Ingurukoek bazekiten asko iraun nuela abenturan, luze ibili nintzelako kanpoan. Baina, irabazi ote nuen galdetzen zidatenean, nik beti berdina erantzuten nuen: «Nahiko nuke nik irabaztea, baina ez dakit nork irabazi duen». Eta egia zen! Ez nengoen gezurrik esaten. Hasiera batean, uste genuen proba batekin erabakiko zutela irabazlea nor izango zen, baina azkenean ez zuten egin. ◀

Jon Kareaga Futbol entrenatzailea, Qatarren

«Txikitatik izan dut futbola nire barnean»

Lezamako zelaia atzean utzita, Qatarreko basamortuetara salto egin du Jon Kareaga futbol-entrenatzaile algortarrak. Urtebeterako kontratua sinatu du tokiko talde bat zuzentzeko.

IKER RINCON MORENO ►

Munduko Futbol Txapelketa hartuko du aurten, udagoienean, Qatarrek, eta horren testigu zuzena izango da Jon Kareaga. Izan ere, tokiko Al-Khor Sports Clubeko futbol-taldea entrenatzen dabil egun algortarra. Urtebete emango du han, etorkizunera begiratu barik orainaz gozatzen saiatzen.

Zergatik Qatar? Egunero Lezamara joatea amets bat izan da. Txikitatik Athletic taldea bihotzean eraman dut eta bertan bizi izandako momentuak ez ditut inoiz ahaztuko. Denboraldia bukatzeko zorian zegoela Qatarretik jaso nuen kontratu profesional bat hango talde bat entrenatzeko.

Zelan bizi izan duzu aldaketa? Aldaketak ezinbestekoak dira, baina atzean neska-laguna, familia eta lagunak uztea ez da gauza erreza. Hala ere, hemengo jendeak asko lagundu nau etxean bezala sentitzeko.

Alde handia dago leku batean zein bestean entrenatzeko moduan? Futbola kirol internazionala da, eta atzerrira joaten zarenean konturatzen zara kirol honek duen handitasunaz. Alde handiak daude, baina desberdintasun kultural eta sozial guztiak baloia mugitzearekin bukatzen dira.

Irakaslea ere bazara. Zelan daramazu bi beharrok aurrera eramatea? Nire bizitza osoa futbol-zelai eta ikasgeletan eman dut; ez dut neurre burua beste leku batean ikusten. Azkenean, beste bizitzetan sortzen ditugun aldaketek geure zentzua zehazten dute. Nire desira umeen eta pertsonen bizitzak hobetzen saiatzea da.



Munduko hainbat lekutan ibili da Kareaga futbolari lotuta. JON KAREAGA

Munduko Futbol Txapelketa

«Oraindik gogoan dut 1994ko Txapelketako partidak nire familiak Aulestin zeukan telebista txiki horretan. 28 urte geroago Munduko Futbol Txapelketa bat zuzenean bizitzeko aukera izango dut»

Zer da futbola zuretzat?

«Jende askori esaten diot futbolak aurrerago bizitzan gertatu zaizkidan gauzen aurretik jarri nauela. Argi dago futbola baino gauza garrantzitsuagoak daudela bizitzan, baina futbola gauza garrantzitsuenetara iristeko lehen eskuko ibilgailua izan daiteke»

Zelan laburbilduko zenuke zure entrenatzailerle-ibilbidea? Luzea eta polita. 17 urterekin hasi nintzen entrenatzen, nire herriko taldeetan hasieran. Harrobitik talde guztietatik pasatu nintzen, 3. mailara heldu arte. Igoera eta txapelketak irabazi ditugu eta nire barnean gordetako oroitzapenak izugarrikoak dira. Gainera, munduko hainbat herrialdetan egoteko aukera izan dut, eta horrek futbola ikuspuntu ezberdinetatik ikustea lagundu dit. Halere, bereziena Athletic zuzentzea izan da. Hori bai izan dela esperientzia hunkigarria.

Zergatik entrenatzaile? Nondik datorkizu zaletasun edo grina hori? Txikitatik futbola izan dut barnean. Irakasle asko nirekin haserretzen ziren beti egoten nintzelako futboleko gauzak egiten edo futboleko kromoekin jolasiten. Baina nire familia izan da gogor lan egitearen eta pertsona ona izatearen garrantzia irakatsi didana. Hori gabe, gaur ez nintzateke nagoen tokian egongo. ◀

Talka

HODEI RODRIGUEZ ARRUTIA Sukar Horia



Uda honetan bete dira 30 urte *World Scientists' Warning to Humanity* manifestua argitaratu zenetik. Bertan, mundu mailako 1.700 zientzialarik gizadia eta lur planeta talka bidean zeudela ohartarazi zuten, sakoneko aldaketak martxan jarri ezean.

Eta ez zen sakoneko aldaketarik gertatu, edo behintzat ez zientzialariek eskatzen zuten norabidean. Izan ere, talka leundu baino, azeleratzen hasi zen, CO2 emisioak etengabe handituz, adibidez. Gure eskualdean ere ezin dugu esan zientzialari horiei jaramon egin zitzaientenik. Hiru hamarkada hauetan ehunka hektarea lur emankor sakrifikatu baitira autobide, txalet eta merkataritza zentroei lekua egiteko.

Badirudi uda honek era argian eman diela arrazoiak zientzialariei, krisi klimatiko eta energetikoa azaleratuz.

Baina, agian, puntu baten erratu ziren. Benetan al da gizadi osoa talkaren eragilea? Esaterako, nekazari Somaliar batek eta Repsoleko buru den Josu Jon Imazek ardura bera al dute krisi klimatikoan? Eta gizarte kapitalistan irabazien pilaketak duen rol zentrala ez al da izan sakoneko neurriak hartzeko oztopo nagusienetakoa? Akaso, Walter Benjaminek zioen bezala, iraultza da dugun larrialdiko balazta. Aktibatuko dugu?

Eraikin arruntak

ARMANDO LLAMOSAS Ondarearen teknikaria



Gure herrietan eraikin asko dugu. Batzuk sendoak: elizak, dorreak... herritarrok zein autoritateak askotan kale egin arren, argi dugu ondarea direla, eta zaindu behar ditugula. Beste eraikin asko arruntagoak dira, batzuetan arruntegiak. Botatzen baditugu ez da ezer aldatuko, are gehiago, hurrengoak ondo egingo balira, irabaziko genuke.

Beste batzuk, ordea, erdi-ipurdian daude. Ez dira sekulako eraikuntzak, baina herriko identitatea egin dute, industriakoak, herriko lanak, komentu modernoak... Guztiok ezagutzen ditugu gure herriko eraikin singularrak, ondarea ez izan arren. Onartu behar dugu asko galdu(ko) direla. Beharra, modernitatea eta erabilpen falta dira bere etsai nagusiak. Horrelakoa da, eta horrela izan behar da, horrelakoa izan baita historian. Hala ere, penagarria da eraikin horiek guztiak botatzea eta galtzea (hiltegiak, eskabetxerriak, komentuak... bururatzen zaizkit). Baliteke auzo eta herriko identitatea eratzen dituzten eraikin horiek bota behar ditugula. Gure autoritateek, alkateek, batez ere, kontuan hartu behar dituzte, ondarea izan gabe, herrien identitatea eraikitzen baitute. Gainera, gehienetan, ez dakit zergatik, eraikin berriak askoz txarragoak dira. Beti.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Urte osoa hanburgesak jaten eman duzu, eta orain dieta egiten hasi gura duzu. Amama haserretuko zaizu egindakoa probatzen ez baduzu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Kotxe zaharrak arazoak ematen dizkizu. Konpondu ala berria? Bada, badirudi ez dela garaia berria erosteko... Has zaitez itxaroten.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Zergatik jartzen zara horren urduri? Arazoak lasaia gortzen ikasi behar duzu horiei behar bezala aurre egin ahal izateko.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Dei garrantzitsurik jaso behar ez baduzu, ez egon horrenbeste begira telefono mugikorrari, lasaia biziko zara.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Pentsatu duzu zer egin gura duzun hasi berri den ikasturtean? Izan ausarta eta saia zaitez benetan gustuko dituzun gauzak aukeratzen.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lanera oinez joaten zarenetik gusturago zaude lankideakaz eta baita zeure buruagaz ere. Goizko haize freskoak ondo esnatzen zaitu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Gainontzekoen gainetik zaudela pentsatuta, jarrera harroa duzunean amorrua sentitzen dute zure ingurukoek.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Zure inguruko kide kutun bat urrutira joango zaizu. Hilabete batzuk bakarrik emango ditu kanpoan, baina asko botako duzu faltan.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Etxean leihotik begira ematen duzu eguna. Ez izan alferra, eta irten zaitez kalera, gauza ederak dituzu zure zain-eta!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Abiadura ez da kontu ona, neurritz ez bada. Ahalegindu zure erritmoa lasaitzen, gorputzak eskertuko dizu-eta.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Bizilagunez txutxu-mutxuka hastera asko gus-tatzen zaizu; bada, zure bizitzaz berba egiten hastean zergatik haserretzen zara?



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Erosketak egitera joaten zarenean guztia erosi gura izaten duzu. Ez dakizu aukeratzen, beraz, hobe kreditu txartela etxean uzten baduzu.

Konpartitu itzazu udako abenturak!

Ikastaroagaz argazki ederrak egiten ikasi duzelakoan, argazki-leihaketa antolatu dugu, zuen udako edota abenturen irudiak partekatu itzazu parte hartzeko.

1go SARIA

Zelan parte hartu?

1. Gaia uda/abenturak izango da.
2. 2022 urtean zehar egindako argazkiak.
3. Pertsona bakoitzeko 3 argazki, gehienez.
4. «2022 argazkia» idatzi e-postako gaian.
5. Parte hartzailearen izen-abizenak adierazi.

Argazkiak bidaltzeko epea

2022ko irailaren 30a.

Nora bidali?

**foto@hiruka.eus edo
www.hiruka.eus webgunean.**



60 x 40 metakrilato-argazkia

Lehiaketako irabazleak 60 x 40 zentimetroko metakrilato-argazkia lortuko du, Foto Ricardo dendaren eskumenez. Nork bere gustukoaren duen argazkia egongelan edo etxean apaingarri gisa jarri ahal izateko aukera paregabea!

Zozketa



Lehiaketan eta zozketan parte hartzeko oinarriak irakurtzeko zein zuzenean lehiaketan parte hartzeko, eskaneatu ezazu QR kode hau.

Fujifilm Instax Mini 11 kamera

Parte hartzaile guztien artean Foto Xabier dendak emandako Fujifilm Instax Mini 11 argazki-kamera zozkatuko dugu; argazkiak momentuan paperean eta oroitzapen gisa edukitzeko aukera izango duzue!

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:




AURREKO
SOLUZIOAK




Zenbat?

Etxeko patata-tortillarik onenak
Pellozirik egiten ditu. Hiru patata,
lau arrautza, olio, gatz eta tipula
behar ditu tortilla bakoitzeko.
Hemen dauzkan gaien arabera,
zenbat tortilla aterako zaizkio?




Jauziak

Hara! Jauzi batetik bestera
lau gauza galdu ditu
Maripurtzilek. Gainera,
elementu berri bat agertu
da. Ikusten al dituzu?



Puzzlea

Puzzle-zati haueetatik zortzik irudia osatuko lukete baina beste laurak engainagarriak dira, hau da, ez dira zehatz-zehatzak. Bereiz itzazu.



IRAILAK 23-24 SEPTIEMBRE
Auditorium // 20:30 // 12 €



URRIAK 7 OCTUBRE
Auditorium // 20:30 // 12 €



URRIAK 2 OCTUBRE
Auditorium // 18:00 // 6 €



URRIAK 21 OCTUBRE
Auditorium // 20:30 // 12 €



hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Mara eta izar saltzailea

Ibaizabal argitaletxeari esker, 8 urtetik gorako umeentzako liburu eder hau zozkatuko dugu HIRUKAlagunen artean. Zurea izatea gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, irailaren 29 (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Zeure burua zaintzeko prest?

Marsun ile-apaindegiaari esker, ilea moztu, orraztu, hidratatzeko eta hari bidez aurpegia depilatatzeko eskaintza sorta zozkatuko dugu. Interesekoa duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, irailaren 29 (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Bake lehorra antzerkia

Arte eszenikoen jardunaldien barruan, Tartean Teatroren antzerkia urriaren 7an izango da, Muxikebarrin, 19:30ean. Horretaz gozatu gura baduzu... eman ezazu izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, irailaren 29 (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



2022ko Getxoko Euskara Saria

ARGIA EREITEN

XIII.
EDIZIOA



BIDALI ZURE HAUTAGAITZA!!

Saritu nahi dugu Getxon lanean, aisialdian, sare sozialetan... egunerokoan giro euskalduna sortzen duen pertsona, taldea, elkartea, saltokia...

EUSKARA ZERBITZUA - GETXOKO UDALA
Tel.: 94 466 00 10/11 euskara@getxo.eus
www.getxo.eus/euskara